• WWW.MUSIKASTE.EUS •

# 49. MUSIKASTE

ERRENTERIA

SEMANA DE LA MÚSICA VASCA

EUSKAL MUSIKAREN ASTEA

URRIAK 15-23 OCTUBRE 2021

ERRENTERIA

# 49. MUSIKASTE

2021

EUSKAL MUSIKAREN ASTEA

SEMANA DE LA MÚSICA VASCA

ANTOLATZAILEAK ORGANIZAN
Andra Mari Abesbatza
Coral Andra Mari
Eresbil-Musikaren Euskal Artxiboa
Eresbil-Archivo Vasco de la Música

SUSTATZAILEAK PROMUEVEN
Errenteriako Udala
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Eusko Jaurlaritza Kultura Saila
Departamento de Cultura del Gobierno Vasco

BABESLEA PATROCINA
Kutxa Fundazioa
Laboral Kutxa

LAGUNTZAILEAK COLABORAN
Errenteria Musikal
Musikene
Musikagileak
Musika Bulegoa
Super Amara

AMA Andra Mari Abesbatza

Eresbil

49.

Aurkezpena / Índice

## PROGRAMA

### Urriak 15, 16, 17, octubre


- Dantza
  Danza 13
- Ahotsa eta pianoa
  Voz y piano 17
- Ganberako musika
  Música de cámara 21
- Eliz musika
  Música religiosa 25
- Txistu eta Banda emanaldia
  Concierto de Txistus y Banda 25


### Urriak 20, 21, 22, 23 octubre


- Musika garaikidea
  Música contemporánea 29
- Jazza
  Jazz 31
- Koruen eguna
  Día Coral 37
- Amaierako kontzertua
  Concierto de clausura 41

- Musikagileak / Compositores 44

- Kontzertu didaktikoak
  Conciertos didácticos 74



# mendeurrenak
## centenarios

### II. JAIOTZAREN MENDEURRENA
II Centenario del nacimiento de

**Juan María ANSOLA**
Elgoibar (1821-)

**José ARANGUREN**
Bilbao (1821-1903)

**Emilio ARRIETA**
Gares (1821-1894)

**José María UGARTEBURU**
Bilbao (1821-1885)

### I. HERIOTZAREN MENDEURRENA
I Centenario del fallecimiento de

**Eusebio BASURKO**
Orio (1856-1921)

**Ricardo BEOBIDE**
Azpeitia (1891-1921)

**Santiago HIRIART**
Azpeitia (1842-1921)

**Pedro GUETARY**
Getaria (1866-1921)

### I. JAIOTZAREN MENDEURRENA
I Centenario del nacimiento de

**Josune BUSTILLO**
Bilbao (1921-1998)

**María Pilar ESTORNÉS**
Isaba (1921-1998)

**Manuel HUARTE**
Zuasti (1921-2013)

**Michel LABÈGUERIE**
Ustaritze (1921-1980)

**Philippe OYHAMBURU**
Argeles-Gazost (1921-)

**Félix ZABALA**
Durango (1921-2013)

MUSIKASTE ofrecerá en octubre de 2021, en Errenteria, su edición número 49. Una edición que sigue marcada por la pandemia de la COVID19, lo que ha obligado a mantener su celebración en dicho mes pero que recupera la jornada de clausura en su vertiente sinfónica.
MUSIKASTE mantiene entre sus objetivos presentar la música de nuestros compositores de todos los tiempos, desde la música antigua a la música de los autores clásicos, con especial apoyo a los compositores de la actualidad.
Varios han sido los retos a los que se enfrenta la presente edición: reivindicar, una vez más, la nueva creación de nuestras compositoras con presencia en varias de las jornadas de la semana y, segundo, estrenar Lekuona Fabrika como nuevo equipamiento cultural.
MUSIKASTE presenta un doble concierto en su jornada inaugural. El dedicado al *lied* correrá a cargo de la soprano Naroa Intxausti y el pianista German Ormazabal, los cuales nos presentarán obras de conocidos autores, destacando las de Emilio Arrieta, del cual celebramos el bicentenario de su nacimiento, y de Emiliana Zubeldia, entre otros.
A su vez, la danza será la protagonista en dicha jornada, con un variado programa encabezado por el bailarín Alain Maya y las interpretaciones musicales de Garikoitz Mendizabal al txistu y Gorka Hermosa al acordeón.
La jornada de cámara tendrá como protagonista al Dúo Sarasate, que nos hará un repaso al repertorio violinístico vasco con obras de César Figuerido, Pablo Sorozabal, Isabel Garmendia y el virtuoso Pablo Sarasate, con su conocido *Capricho vasco.*
MUSIKASTE en la jornada dedicada a la música religiosa vivirá uno de los días más emotivos con el estreno de la obra titulada *Arimen besarkadan*, de la compositora Junkal Guerrero, compuesta en homenaje a las víctimas de la pandemia. La jornada continuará con el concierto conjunto de Txistu y Banda, en el cual se interpretarán obras de Eusebio Basurko, de quien celebramos el centenario de fallecimiento, Tomás Aragüés, Félix y Julián Lavilla, y Mertxe Isasti, entre otros.
La música contemporánea tratará el universo feminista con el estreno del monodrama filosófico para soprano y grupo de cámara compuesto por Asier Lopez Iraola y titulado *El segundo sexo*, basado en el libro con el mismo título de Simone de Beauvoir. La interpretación estará a cargo de la soprano Jone Martinez y Bilbao Sinfonietta, bajo la dirección de Iker Sánchez y con escenografía de Alex González.
El jazz vuelve a MUSIKASTE de la mano de Angel Unzu, que nos presentará su último disco *Orain* en formato de cuarteto eléctrico.
El día coral volverá a rememorar la obra de compositores de dilatada trayectoria junto con una nueva generación de compositores corales que está teniendo un gran éxito a nivel nacional e internacional. Obras de Tomás Aragüés y Luis Aramburu convivirán con creaciones de David Azurza, Xabier Sarasola, Eva Ugalde, Josu Elberdin e Iñigo Casalí. Las formaciones Eragiyok Abesbatza, Donosti Ereski Abesbatza, Landarbaso Abestatza y la Coral Andra Mari serán las encargadas de dar vida a la jornada en el nuevo espacio Lekuona Fabrika.
Para finalizar, la presente edición recupera el día sinfónico como broche de oro a la semana. Será la EGO, o Joven Orquesta de Euskal Herria, bajo la dirección de Rubén Gimeno, la encargada de interpretar obras de José Luis Marco, Beatriz Arzamendi, Beltrán Pagola, uno de nuestros primeros sinfonistas, y Juan Crisóstomo Arriaga, representante vasco del incipiente romanticismo europeo.

# 49.MUSIKASTE

MUSIKASTEk 49. edizioa eskainiko du Errenterian 2021eko urrian. Aurtengo edizioak COVID19aren pandemiarekin jarraitzen du, eta, ondorioz, berriz ere urrian egingo da, baina itxiera-eguna berreskuratuko du, kontzertu sinfonikoarekin.
MUSIKASTEk bere sorrerako helburuei eusten die: garai guztietako euskal konpositoreen musika ez hain ezaguna aurkeztea, antzinako musikatik autore klasikoen musikara, gaur egungo konpositoreei babes berezia emanez.
Hainbat erronka izan ditu aurtengo edizioak: batetik euskal emakume musikagileen sorkuntza lanak aldarrikatzea, asteko hainbat jardunalditan parte hartuz, eta, bigarrenik, Lekuona Fabrika kultur ekipamendu berri gisa estreinatzea.
MUSIKASTEk kontzertu bikoitza aurkeztuko du inaugurazio egunean. Naroa Intxausti sopranoak eta German Ormazabal piano-jotzaileak gidatuko dute saioa, eta egile ezagunen lanak aurkeztuko dituzte, Emilio Arrietaren (haren jaiotzaren berrehungarren urteurrena ospatzen dugu) eta Emiliana Zubeldiaren lanak, besteak beste. Aldi berean, dantza izango da protagonista egun horretan, Alain Maya dantzaria eta Garikoitz Mendizabalek txistuan eta Gorka Hermosak akordeoian egindako musika interpretazioekin.
Ganbera egunean Sarasate bikotea izango da protagonista. Biolinerako euskal errepertorioa errepasatuko du César Figuerido, Pablo Sorozabal, Isabel Garmendia eta Pablo Sarasate bertutetsuaren lanak interpretatuz.
MUSIKASTEk, musika erlijiosoari eskainitako egunean, egunik hunkigarrienetako bat biziko du, Junkal Guerrero konpositorearen *Arimen besarkadan* lana estreinatuko baitu, pandemiaren biktimen omenez idatzi zuena.
Egunak aurrera jarraituko du Txistu eta Bandaren kontzertuarekin, eta Eusebio Basurkoren, Tomás Aragüesén, Félix eta Julián Lavillaren eta Mertxe Isastiren lanak interpretatuko dituzte, besteak beste.
Musika garaikideak unibertso feminista aztertuko du Asier Lopez Iraolak konposatutako soprano eta ganbera taldearentzako monodrama filosofikoaren estreinaldiarekin. Simone de Beauvoirrek idatzitako liburuan oinarritua dago eta izenburu bera du: *Bigarren sexua*. Jone Martínez sopranoak eta Bilbao Sinfoniettak interpretatuko dute, Iker Sánchezen zuzendaritzapean eta Alex Gonzálezen eszenografiarekin.
Jazza MUSIKASTEra itzuliko da Angel Unzuren eskutik, eta *Orain* bere azken diskoa aurkeztuko digu laukote elektriko formatuan.
Abesbatzen egunean, ibilbide luzeko konpositoreen lana gogora ekarriko da, baita Espainian eta nazioartean arrakasta handia izaten ari den musikagile belaunaldi berriaren lana ere. Tomás Aragüésen eta Luis Aramburuen lanak David Azurza, Xabier Sarasola, Eva Ugalde, Josu Elberdin eta Iñigo Casalíren sorkuntzekin uztartuko dira. Eragiyok abesbatza, Donosti Ereski abesbatza, Landarbaso abesbatza eta Andra Mari abesbatza arduratuko dira jardunaldia aurrera emateaz Lekuona Fabrika gune berrian.
Amaitzeko, edizio honek asteko egun sinfonikoa berreskuratuko du. EGOk (Euskal Herriko Gazte Orkestra), Rubén Gimenoren zuzendaritzapean, José Luis Marco, Beatriz Arzamendi, Beltrén Pagola, gure lehen sinfonistetako bat, eta Juan Crisóstomo Arriagaren lanak, interpretatuko ditu.



# PROGRAMA EGITARAUA

URRIAK 15, 16, 17 OCTUBRE

URRIAK 20, 21, 22, 23 OCTUBRE



# MAYA, Alain



Errenterian 1985ean jaioa. Sei urterekin Errenteriako Ereintza Dantza Taldean hasi zuen bere dantzari ibilbidea, eta gaurdaino hainbat irakasle edo koreograforekin pilatutako esperientziarekin osatu du bere formazioa. Errenteria Musikal Dantza Eskolan euskal dantza eta dantza klasikoan ikasketak burutu ondoren Ereintzarekin nazioarteko hainbat folklore jaialditan aritua.

2002 urtean Kukai Dantza Konpainiaren sorreran hartu zuen parte, tradiziotik abiatutako proiektua gaur egungo joera eta dantzakerekin uztartzen dena. Horrek, lengoia artistiko ezberdinak ezagutzeko aukera eman dio eta hainbat koreografo eta artistarekin kolaboratzeko aukera eman ere: Cesc Gelabert, Marcos Morau, Sharon Fridman... Horrez gain, hainbat musikarirekin: Oreka Tx eta Garikoitz Mendizabal, besteak beste. Kukairekin hainbat sari irabazi ditu, Espainiako Dantza Saria, Max Sariak edo Donostia Antzerki Saria adibidez.

Gaur egun Zumaiako Musika eta Dantza Eskolan irakasle lanetan dihardu.

Nacido en Errenteria en 1985. A los seis años comenzó su carrera como dantzari en Ereintza Dantza Taldea de Errenteria y hasta la fecha ha completado su formación con la experiencia acumulada con varios profesores o coreógrafos. Tras cursar estudios de danza clásica y vasca en la Escuela de Danza de Errenteria Musikal, participó en varios festivales internacionales de folklore con Ereintza.

En 2002 participó en la creación de la Compañía de Danza Kukai, un proyecto que parte de la tradición y se combina con las tendencias y bailes actuales. Esto le ha permitido conocer diferentes lenguajes artísticos y colaborar con coreógrafos y artistas como Cesc Gelabert, Marcos Morau, Sharon Fridman... También con varios músicos: Oreka Tx y Garikoitz Mendizabal, entre otros. Con Kukai ha ganado varios premios, como el Premio Nacional de Danza, los Premios Max o el Premio Donostia de Teatro.

Actualmente trabaja como profesor en la Escuela de Música y Danza de Zumaia.

# MENDIZABAL, Garikoitz



Zestoan jaioa (1973). Gaur egun, txistularien artean erreferenteetako bat. Bakarlari modura Euskal Herriko Txistularien Lehiaketako lehen saria eskuratu zuen 1994 eta 1996an. 2002an Errenteriako Txistulari Banden Lehiaketako lehen saria eskuratu zuen Gasteizko Txistularien Udal Bandarekin.
Gasteizko Txistularien Udal Bandako zuzendaria izan da 1997tik 2002ra. 2004ko urtarriletik Bilbaoko Udal Txistulari Banda zuzentzen du.
Prestigio handiko taldeekin aritu izan da bakarlari moduan. Hauen artean, Madrilgo Komunitateko Orkestra Sinfonikoa, The Bratislava Symphony, Bartzelonako Lizeo Antzokikoa, San Petersburg State Symphony, Euskadiko, Bilboko eta Nafarroako Sinfonikoekin, Hego Korean Chuncheon Philharmonic Orchestra eta Gyonbook Philharmonic, eta Libanoko Philharmoniko orkestrekin.
Argitaratu dituen 16 diskotan estilo eta erregistro ugari eskaintzen ditu: musika klasikoa, tradizionala, antzinako musika zelta eta jazz-a.
Musikari ugarirentzako egiten ditu kolaborazioak: Korrontzi, Xabier Zabala, Aitor Furundarena, Xabi Aburruzaga, Kepa Junkera edota Carlos Núñez, besteak beste. Gaur egun KHAMI eta Alberto Urrechoren Soinuaren Bidaia proiektuan ere badabil.
Euskal Herriko Txistularien Elkarteko presidentea izan da 2003tik 2010ra bitartean.
2004 ezkero Bilboko Udal Txistulari bandako zuzendaria da. Euskalerriko Adiskideen Elkarteko kidea da era berean.

Originario de Zestoa, Gipuzkoa (1973), logra dos primeros Premios en el Concurso de Txistularis solistas del País Vasco (1994 y 1996) y en 2002 el primer premio en el Certamen de Bandas de Txistularis celebrado en Errenteria (Gipuzkoa) con la Banda Municipal de Txistularis de Vitoria, de la que fue director.
Ha actuado con entidades como las orquestas Sinfónica de la Comunidad de Madrid, Bratislava Symphony, Orquesta del Liceu (Barcelona), San Petersburg State Symphony, Sinfónicas de Euskadi, Bilbao y Navarra, Filarmónica de Líbano, Chuncheon Philharmonic Orchestra, Gyonbook Philharmonic en Corea del Sur, la Banda Sinfónica Municipal de Madrid o el Ballet Nacional de España.
Tiene en su haber 16 discos, abarcando registros muy diferentes: música clásica, tradicional, música celta, jazz o música antigua.
Colabora habitualmente con Korrontzi, Xabier Zabala, Aitor Furundarena, Xabi Aburruzaga y Carlos Núñez, y participa en proyectos como KHAMI, con Carlos Sagi, y Soinuaren Bidaia, con el trombonista Alberto Urrecho. En 2012 presenta Txistu Symphonic, en el que una Orquesta Sinfónica acompaña al artista, grabación realizada con la Orquesta Sinfónica de Bratislava.
En la actualidad, y desde 2004, es director de la Banda Municipal de Txistularis de Bilbao. Es también miembro de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País.

http://www.garikoitzmendizabal.com

# HERMOSA, Gorka



Urretxun jaio zen 1976an. Musika ikasketak Zumarraga, Irun, Donostia eta Gasteizko Eskola eta Kontserbatorioetan egin zituen. Thierry Paillet, Friedrich Lips, Amaia Liceaga eta Carlos Iturralderekin areagotu zituen ikasketak, Larrodeko (Auvergne, Frantzia) E.D. du Thor (Avignon, Frantzia) eta C.N.I.M.A ikastetxeetan akordeoi-formakuntza osatu zuen eta Elsbeth Moser, Eric Pisani, Jean Luc Manca edo Jacques Morneten eskolak jaso zituen.
Akordeoi eskolak eman ditu Valladoliden eta 2003/04 ikasturtetik, Alcañizeko (Teruel) Musika Kontserbatorio profesionalean.
Interprete bezala, Espainiako orkestra sinfoniko batekin (O.R.T.V.E) eta ondoren beste orkestra batzuekin jo zuen lehen soinujolea izan zen. Txina, Iran, Amerika eta Europan zehar kontzertuak eman ditu, eta Paquito d'Rivera (Grammy saria), Jorge Pardo, Ara Malikian, La Mari (Chambao), Luis Auserón (Radio Futura), India Martínez... bezalako musikariekin lan egin izan du.
Bere zazpi disko argitaratu ditu, eta beste zenbait artistaren hogeita hamar CD baino gehiagotan parte hartu du. Akordeoiaren historiari buruzko lau liburu idatzi ditu, eta gai horri buruzko hitzaldiak hogei herrialde baino gehiagotan eman.
Haren obrak bost kontinenteetako akordeoilariek interpretatu ohi dituzte. CIA IMC-UNESCO Composition saria jaso du, eta lau aldiz azken 6 urteetan Confederation Mondiale d 'Accordéon-ek urteko konposizio onenari ematen dion saria. Haren lanak Berliner Philharmoniker edo Washingtongo National Operan ere interpretatu izan dira, baita hainbat herrialdetan: AEB, Brasil, Finlandia, Belgika, Errumania, Lituania, Polonia, Espainia, besteak beste. Film laburren eta TVE2ko hainbat dokumentalen musika konposatu du.

Nacido en Urretxu en 1976, realizó sus estudios musicales en la Escuela y Conservatorios de Zumarraga, Irun, Donostia y Vitoria-Gasteiz. Ha ampliado estudios con Thierry Paillet, Friedrich Lips, Amaia Liceaga y Carlos Iturralde, completado su educación acordeonística en los centros E.D. du Thor (Avignon, Francia) y C.N.I.M.A de Larrode (Auvergne, Francia) y recibido clases de Elsbeth Moser, Eric Pisani, Jean Luc Manca o Jacques Mornet.
Ha impartido clases de acordeón en Valladolid y, desde el curso 2003/04, en el Conservatorio Profesional de Música de Alcañiz (Teruel).
Como intérprete, fue el primer acordeonista en tocar con una orquesta sinfónica en España (ORTVE) y, posteriormente, con otras diversas orquestas. Ha dado conciertos por China, Irán, América y Europa, y ha colaborado con músicos como Paquito D`Rivera (Premio Grammy), Jorge Pardo, Ara Malikian, La Mari (Chambao), Luis Auserón (Radio Futura), India Martínez…
Ha publicado siete discos propios y ha participado en más de una treintena de CDs de otros artistas. Ha escrito cuatro libros sobre la historia del acordeón, dando conferencias sobre este tema en más de una veintena de países.
Como compositor, sus obras son habitualmente interpretadas por acordeonistas de los cinco continentes. Ha recibido el premio CIA IMC-UNESCO Composition y 4 veces en los últimos 6 años el premio que la Confédération Mondiale d'Accordéon da a la mejor composición del año. Sus obras han sido interpretadas en lugares como la Berliner Philharmonie o la National Opera de Washington, y sus obras para acordeón y orquesta estrenadas en EE.UU., Brasil, Finlandia, Bélgica, Rumanía, Lituania, Polonia, España... Ha compuesto música para cortometrajes y varios documentales de TVE2.

15
urria
octubre

ostirala - viernes
19:00etan
Niessen Kulturgunea

**BASQUE DANCE nº1**

- *¿Aurresku…?* (Traditional/Hermosa) (2019)

**MINIMAL DANCES**

- *Sogni* (2021)
- *Amore* (2019)
- *Alabei* (2018)

**BASQUE DANCE nº2**

- *¿Fasio…?* (Traditional/Hermosa) (2005)

**EUROPEAN DANCES**

- *Palmi* (2018)
- *Northern Lights* (2016)
- *Sua* (2017)
- *Dwarves`Tales* (2020)

**BASQUE DANCE nº3**

- *Zumardi* (2018)

**Alain Maya,** dantza
**Garikoitz Mendizabal,** txistua
**Gorka Hermosa,** akordeoia

# INTXAUSTI, Naroa



Naroa Intxausti soprano bilbotarrak Piano eta Kantu karrerak Bilboko Goi Mailako Kontserbatorioan egin zituen, eta prestakuntza Teresa Berganza, Isabel Rey edo Dalton Baldwinen klase magistralekin osatu zuen.
Nazioarteko lehiaketetan hainbat sari irabazi ditu, eta 2003an debuta egin zuenetik orkestrako eta eszenako zuzendari ospetsuekin lan egin du, Michael Guettler, Michael Hofstetter, Christophe Rousset, Giancarlo Del Monaco, Peter Mussbach, Emilio Sagi, Balász Kovalik edo Calixto Bieito, esate baterako.
OLBE-ABAO, Gran Teatre del Liceu, Berliner Philharmonie, Alte Oper Frankfurt, Kammeroper, Schloss Rheinsberg, Konzerthaus Berlin, Mecklenburgisches Staatstheater, Saarländisches Staatstheater, Palau de la Música Catalana eta Schwetzinger Festspiele aretoetan abestu izan du, besteak beste.
2012tik 2016ra Naroa bakarlari iraunkorra izan zen Stadttheater Gießenen (Hesse, Alemania) non Mozart, Rossini, Haendel, Arrieta eta Rossiniren operetako paperak interpretatzen entzun ahal izan den.
Denboraldi honetan, besteak beste, honako obretan izango dugu entzungai: Zaira (Bellini) interpretatuko du rol nagusian, Macbeth (Dama), Krieg opera garaikidea (Marius Felix Lange), Die Schöpfung (Haydn), Petite Messe Solennelle (Rossini) eta Cantos del alma (Lorenzo Palomo).

La soprano bilbaína Naroa Intxausti estudió las carreras de Piano y Canto en el Conservatorio Superior de Bilbao, completando su formación en clases magistrales con Teresa Berganza, Isabel Rey o Dalton Baldwin.
Ganadora de diversos premios en concursos internacionales, desde su debut operístico en 2003 ha trabajado con reputados directores de orquesta y de escena, como Michael Guettler, Michael Hofstetter, Christophe Rousset, Giancarlo del Monaco, Peter Mussbach, Emilio Sagi, Balász Kovalik o Calixto Bieito.
Ha sido invitada a cantar, entre otros, en OLBE-ABAO, Gran Teatre del Liceu, Berliner Philharmonie, Alte Oper Frankfurt, Kammeroper Schloss Rheinsberg, Konzerthaus Berlin, Mecklenburgisches Staatstheater, Saarländisches Staatstheater, Palau de la Música Catalana y Schwetzinger Festspiele.
Del 2012 al 2016 Naroa es solista permanente en Stadttheater Gießen (Hesse, Alemania), donde se la ha podido escuchar interpretando papeles en óperas de Mozart, Rossini, Haendel, Arrieta y Rossini, entre otros.
En la actual temporada interpretará, entre otras, Zaira (Bellini) en el rol principal, Macbeth (Dama), la ópera contemporánea Krieg (Marius Felix Lange), Die Schöpfung (Haydn), Petite Messe Solennelle (Rossini) y Cantos del alma (Lorenzo Palomo).

naroaintxausti.com

# ORMAZABAL, German



Piano-jotzailea. Piano eta Akordeoi ikasketak Donostiako Goi Mailako Kontserbatorioan egin zituen. Era berean, Zuzenbidean lizentziatu zen Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU). Hamar urtez Euskadiko Orkestra Sinfonikoko Zuzendari Nagusi izan zen (1996-2005) eta ordutik enpresa kudeaketari dagozkion hainbat ardura kargu izan ditu. 2020ko urtarrilean EGOko (Euskal Herriko Gazte Orkestra) Koordinatzaile Nagusi izendatu zuten.
Pianista bezala errezitalak eman ditu bakarka, eta uneko bere kolaborazio eta proiektuen artean, hainbat talde koralekin eta artistekin egindakoak nabarmendu ditzakegu: Ainhoa Garmendia, Maite Arruabarrena, Miren Urbieta-Vega, Elena Sancho, Paula Iragorri, Pello Ramirez, Garikoitz Mendizabal, Xabier Zabala, Andoni Egaña bertsonari eta idazlea, Xabier Lizaso, eta abar.

Pianista. Cursó estudios superiores de Piano y Acordeón en el Conservatorio de Música de San Sebastián. Es licenciado en Derecho por la Universidad del País Vasco (EHU-UPV). Durante diez años (1996-2005) ha sido Director General de la Orquesta Sinfónica de Euskadi, y a continuación ha desempeñado diversos cargos de máxima responsabilidad en el campo de la gestión empresarial. En enero de 2020 es nombrado Coordinador General de la EGO (Joven Orquesta de Euskal Herria).
Como pianista, German ha ofrecido recitales en solitario y, entre sus colaboraciones y proyectos en curso, podemos destacar, entre otras, las realizadas con diversas agrupaciones corales y artistas de la talla de Ainhoa Garmendia, Maite Arruabarrena, Miren Urbieta Vega, Elena Sancho, Paula Iragorri, Pello Ramirez, Garikoitz Mendizabal, Xabier Zabala, el bertsolari y escritor Andoni Egaña, Xabier Lizaso, etc.



**15** urria octubre

ostirala - viernes
19:00etan
Magdalena Ermita

**Jesús Arámbarri** Ocho canciones vascas

*Txalopin txalo*
*Nere maitia*
*Atea tan tan*
*Tun, kurrun, kutun*
*Arranoak bartuetan*
*Ainoarra nimiño*
*Anderegeya*
*Amak ezkondu ninduen*

**Emiliana Zubeldia** Cuatro canciones sobre poemas de Ana Mairena

*El primer día*
*Perdí mi canica*
*Que soy blanca rosa*
*¡Ay, que no soy!*

**Emilio Arrieta** *La niña abandonada*

*Pobre Granada*

**Pedro Guetary** *Kathaliñ*

**Joseph Canteloube** Chants des Pays Basques

*Chorietan buruzagi*
*Nik badut maiteñobat*
*Chori erresiñoula*
*Lurraren pian*
*Egun batean*

**Pablo Sorozabal** Siete Lieder

*Ametsetan*
*Otz eta itxiltsu*
*Zure moxuan*
*Lotoren lorak*
*Ez dot ziñesten*
*Eres dagie txilibituak*
*Agertu-yatan orila*

**Naroa Intxausti,** sopranoa
**German Ormazabal,** pianoa

m· Magdalenaren lagunak kultur elkartea

## Ahotsa eta pianoa
## Voz y piano

# MESONERO, Jonathan



1988an jaio zen. Biolin-jotzaile irundar honek bakarlari gisa lan egiten du, errepertorio klasiko eta garaikideko obrak interpretatuz.
Europako erakunde ospetsuetan hezia, Jonathan Mesonero Ohorezko Matrikularekin lizentziatu zen Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegian (Musikene) Keiko Watayarekin, eta Berlingo Universität der Künsten (UdK) Latica Honda-Rosenbergekin.
Musikaren ikuskera integral batekin bat etorriz, ganbera musikako interpretea ere izan da, Artemis, Casals, Orpheus eta Iturriaga laukoteekin lan eginez, baita Natalia Prischepenko, Hartmut Rohde, Andoni Mercero, Heime Müller eta Berlingo Filarmonikako kideekin ere.
Espainiako Irrati Telebistako Orkestrako kidea, Espainiako Orkestra Nazionalarekin, Berliner Cameratarekin, Euskadiko Orkestrarekin eta Bilbao Orkestra Sinfonikoarekin ere lan egin du, besteak beste.
Gipuzkoako biolin Lehiaketaren Saria eman zioten, eta Nicanor Zabaleta Fundazioa, Humboldt – Wardwell Stiftung, Artistas Intérpretes o Ejecutantes (AIE), Gipuzkoako Aldundia edo Kutxa bezalako erakundeetatik jasotako sariek bere interpretazioen kalitatea bermatzen dute.
2020an bere bakarkako lehen diskoa argitaratu zuen, *Trascendo*, IBS Classical diskoetxe ospetsuarekin grabatua, Eusko Jaurlaritzaren eta Donostia Musikaren babesa jasoz.

Violinista irunés nacido en 1988, Jonathan desarrolla una carrera como solista uniendo la interpretación de obras del repertorio clásico y contemporáneo.
Formado en prestigiosas instituciones europeas, Jonathan Mesonero se licenció con Matrícula de Honor por el Centro Superior de Música del País Vasco (Musikene) con Keiko Wataya y por la Universität der Künste de Berlín (UdK) con Latica Honda-Rosenberg.
En consonancia con una concepción integral de la música, une a su faceta como solista la de intérprete de música de cámara, habiendo trabajado con los cuartetos Artemis, Casals, Orpheus e Iturriaga, así como con Natalia Prischepenko, Hartmut Rohde, Andoni Mercero, Heime Müller y miembros de la Filarmónica de Berlín. Lidera distintas formaciones camerísticas como el ArTrio Berlin, y forma junto a Mercedes Medina el Dúo Sarasate.
Miembro de la Orquesta de Radio Televisión Española, ha trabajado también con la Orquesta Nacional de España, la Berliner Camerata, la Orquesta de Euskadi y la Orquesta Sinfónica de Bilbao, entre otras.
Reconocimientos como el Premio en el Certamen de Violín de Gipuzkoa o los galardones recibidos de instituciones como la Fundación Nicanor Zabaleta, Humboldt–Wardwell Stiftung, Artistas Intérpretes o Ejecutantes (AIE), Diputación de Gipuzkoa o Kutxa, avalan la calidad de sus interpretaciones.
En 2020 publica su primer álbum en solitario, *Trascendo*, grabado con el prestigioso sello discográfico IBS Classical, recibiendo el apoyo del Gobierno Vasco y Donostia Musika.

jonathanmesonero.com

# MEDINA, Mercedes



Donostian jaio zen. Aitarekin, José Antonio Medina Labradarekin, ikasi zuen, eta karrera osoan zehar kalifikazio altuenak lortu zituen.
1978an Sevillara joan zen Goi Mailako Ikasketak egitera Ramón Collekin, eta Hans Graf, Vlado Perlemutter eta Dmiter Bashkirovekin hainbat ikastaro ere egin zituen.
1982an oposizio-lehiaketa bidez, Donostiako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko irakasle-plaza lortu zuen.
1986an Eusko Jaurlaritzaren beka jaso zuen eta Anberesera joan zen Frédéric Gevers piano-jotzaile belgikarrarekin hobekuntza ikasketak egitera.
Itzultzean, Gernikako eta Donostiako piano lehiaketetan epaimahaikide izan zen. Era berean, kontzertu ugari ematen ditu, besteak beste, Dúo eta Trío Nébel-ekin.
2007 eta 2010 urteen artean, beste norabide bat hartu zuen irakaskuntzan, eta Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatoriora joan zen, Errepertorio Departamentuko piano-jotzaile gisa.
2012an, Samer bikotea osatu zuen Saioa López – Sánchez sopranoarekin batera, eta 2016an Sarasate bikotea sortu zuen Jonathan Mesonero biolinistarekin batera, hainbat herritan errezitaldiak eskainiz.
2018ko Iberoamerikan jo zuen lehen aldiz, Nébel bikotearekin Txilen egindako kontzertu-biran. Urte berean, Zugaz bikotea sortu zuen Elena Cadiernorekin. Duela urte gutxi arte etxeko zirkulu intimora eta lagunetara mugatzen zen errepertorio bat ezagutaraztea da bere helburuetako bat.

Nacida en San Sebastián, estudió con su padre, José Antonio Medina Labrada, obteniendo las máximas calificaciones a lo largo de toda la carrera.
En 1978 se traslada a Sevilla para cursar los Estudios Superiores con Ramón Coll, asistiendo a diversos cursos con Hans Graf, Vlado Perlemutter y Dmiter Bashkirov.
En 1982 obtiene por Concurso Oposición plaza de profesora en el Conservatorio Superior de Música de San Sebastián.
En 1986 becada por el Gobierno Vasco, se traslada a Amberes para continuar sus estudios de perfeccionamiento con el pianista belga Frédéric Gevers.
A su regreso, forma parte del jurado en los concursos de piano de Gernika y San Sebastián. Asimismo, despliega una intensa actividad de conciertos con los Dúo y Trío Nébel.
Entre los años 2007 y 2010 da un rumbo nuevo a su vida docente trasladándose al Conservatorio Superior de Música de Navarra, donde ejerce como pianista dentro del Departamento de Repertorio.
En el año 2012 forma el Dúo Samer junto a la soprano Saioa López – Sánchez y, desde 2016, forma parte del Dúo Sarasate junto al violinista Jonathan Mesonero, ofreciendo innumerables recitales a nivel nacional.
En diciembre de 2018 toca por primera vez en Iberoamérica en una gira de conciertos por Chile con el Dúo Nébel y, ese mismo año, crea el Dúo Zugaz con Elena Cadierno. Dar a conocer un repertorio que hasta no hace muchos años se circunscribía al círculo íntimo del hogar y los amigos es uno de sus objetivos.

mercedesmedina.com


A
= 80 Whimsically

**16** urria octubre

larunbata - sábado
19:00etan
Magdalena Ermita

**Enrique Fernández Arbós** — *Tango*

**César Figuerido Guelbenzu** — *Canciones y danzas vascas (2º cuaderno)*
- *Agate deunaren abestiya – Canción de la noche de Santa Águeda*
- *Makilaren txikikoa – Danza para los palos cortos*
- *Lorpean – Cuita amorosa*
- *Basa txoritxu – Pajarito bosqueño*

**César Figuerido Guelbenzu** — *Idilio amoroso interrumpido por un aquelarre*

**Pablo Sorozabal** — *Eresi*

*Inguruko*

**Mª Isabel Garmendia Goyeneche** — *Suite para piano nº 1 “Oroimenak” **
- *Meditación*
- *Burlesca*
- *Tango*
- *Barcarola*

**Pablo Sarasate** — *Capricho vasco*

*Estreinaldi Nagusia

Dúo Sarasate
Jonathan Mesonero, biolina
Mercedes Medina, pianoa

mª Magdalenaren lagunak kultur elkartea

## Ganberako musika
## Música de cámara

# MENDIZABAL, Alize



Organo ikasketak egin zituen Toulouseko C.E.S.M.D-n, Gipuzkoako Foru Aldundiaren beka batekin, besteak beste, honako irakasleekin: E. Landart (Urrezko Domina eta hobekuntzako lehen saria Bayonneko CNRn), M. Bouvard, Jan Willem Jansen, L. Robillard, S. Bois (lehen saria, Mention Très Bien à l 'Unanimitè du Jury).

Musikenen irakasle izateaz gain, bakarlari gisa aritzen da, eta kontzertuak eskaini izan ditu Europan, Japonian eta Hego Amerikan, ziklo eta jaialdi espezializatu garrantzitsuetan parte hartuz. Gainera, Conductus Ensemble musika barrokoko taldeko kidea da 2002an sortu zenetik.

2009tik Donostiako Santa Maria Basilikako Cavaillé-Coll (1863) organoko organista titularra da.

Cursa sus estudios de órgano con profesores como E. Landart (Medalla de Oro y el Primer Premio de Perfeccionamiento en el CNR de Bayonne), M. Bouvard, Jan Willem Jansen, L. Robillard, S. Bois (Primer Premio, Mention Très Bien à l'Unanimitè du Jury) en el C.E.S.M.D. de Toulouse, becada por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Compagina su labor docente en Musikene con su carrera como solista, habiendo ofrecido conciertos en Europa, Japón y América del Sur, participando en importantes ciclos y festivales especializados. Es además componente del grupo de música barroca Conductus Ensemble desde su fundación en 2002.

Desde el año 2009 es organista titular del gran órgano Cavaillé-Coll (1863) de la Basílica de Santa María de San Sebastián.

# ERRENTERIAKO UDAL TXISTULARI TALDEA
# BANDA MUNICIPAL DE TXISTULARIS DE ERRENTERIA



Errenteriako Udal Txistulari talde berria 2003ko ekainean eginiko oposaketen ondoren sortu zen. Txistu taldea honako hauek osatzen dute: Xabier Vesga (1go txistua eta zuzendaria), Olatz Oliveri (2. Txistua), Josu Izagirre (silbotea) eta Iñaki Letamendia (atabal).
Txistu taldeak eginkizun desberdinak ditu: igandero herriko auzo desberdinetan bere hots gozoaz esnatzen gaituzte, hilean behin kontzertua eskaintzen dute Udaletxeko arkupetan, Inauterietako diana goiztiarrak, korporazioak, San Juan bezperako aurreskua, Madalenetako prozesioak, buruhandi eta erraldoiak, eta abar luze bat.
Ekintza horietaz gain, herriko beste ekintza eta festetan parte hartzen du. Gainera, Euskal Herriko Txistulari Elkarteak antolatzen dituen ekitaldietan parte hartzen du beste herrialdetako udal txistu eta txistulariekin batera.

La actual Banda Municipal de Txistularis de Errenteria se formó en 2003 tras la celebración de oposiciones, empezando su andadura el mes de julio. El grupo de txistus lo componen las siguientes personas: Xabier Vesga (txistu 1º), Olatz Oliveri (txistu 2º), Josu Izagirre (silbote) e Iñaki Letamendia (atabal).
La banda de txistularis tiene varias funciones: todos los domingos tocan la diana por los barrios de Errenteria, una vez al mes ofrecen un concierto en la plaza del Ayuntamiento, diana de carnavales, corporaciones, aurresku de la víspera de San Juan, procesión de Magdalenas, gigantes y cabezudos, etc.
Además de estas actividades, también toma parte en otros actos y fiestas de Errenteria. Asimismo participa en los actos organizados por Euskalerriko Txistulari Elkartea, con txistularis de otros pueblos y ayuntamientos.

# ERRENTERIAKO MUSIKA KULTUR ELKARTEKO BANDA
# BANDA DE LA ASOCIACIÓN DE CULTURA MUSICAL DE ERRENTERIA

Joan den 2014ean 150 urte bete zituen Errenteriako Musika Bandak. 1864. urtean sortua, historian zehar izen ezberdinak jaso izan ditu: “Sociedad Filarmónica” (1864) eta Udal Musika Banda (1923), horrela 1948. urtean orain duen izena hartu zuen. Bandaren zuzendaritza Teodoro Gamón, Hipólito Guezala, José María Iraola, Gabino Zarranz, Valentín Manso, Ignacio Ubiria, José Luis Mate edo Aitor Mitxelena Rubioren ardurapean egon da; eta zuzendari gonbidatu gisa, M. Lorenzo de Reizábal, J.A. Sáinz Alfaro, J.M. Tife Iparragirre, X. Rallo Sagarzazu edota J.M. Guezala.
Hainbat sari jaso izan ditu eta Donostiako Musika Hamabostaldian parte hartu zuen (1995 eta 1998an), Musikasten 1995etik egun arte; bai eta Oskorri taldearekin 2008 eta 2014ean. Nazioarte mailan eskaini izan ditu emanaldiak, Bordelen, Lousadan-Oporton (2002) edo Pariseko “La Cigale” antzokian (2010). 1996. urtetik Musika Banden Alardea antolatzen du. 2012an, Nazioarteko Konposizio Lehiaketa antolatu zuen “Musikagileak” elkartearekin batera. ACNUR, Siriako gerrateko kaltetuen edo bestelako kalteteun aldeko kontzertu solidarioak ere antolatu izan ditu.
2016 urtean bere ibilbideagatik UPV-Orfeón Donostiarra saria jaso zuen. Gaur egun Alain Ayerdi da EMKE-ko zuzendaria.




La Banda de Música de Errenteria, fundada en el año 1864, ha recibido diversos nombres a lo largo de su historia: Sociedad Filarmónica (1864) y posteriormente Banda Municipal (1923), hasta recibir en el año 1948 su actual denominación. Han sido sus directores Teodoro Gamón, Hipólito Guezala, José María Iraola, Gabino Zarranz, Valentín Manso, Ignacio Ubiría, José Luis Mate y Aitor Mitxelena, siendo dirigidos asimismo por M. Lorenzo de Reizabal, J.A. Sáinz Alfaro, J.M. Tife Iparragirre, X. Rallo Sagarzazu o J.M. Guezala.
Es poseedora de diversos premios y ha ofrecido conciertos especiales en la Quincena Musical de Donostia (1995 y 1998), Burdeos, Lousada - Oporto (2002), o en la sala “La Cigale” de París (2010); en Musikaste desde 1995 hasta el presente; así como con el grupo vasco Oskorri (2008 y 2014). Organiza desde 1996 un Alarde de Bandas anual. En 2012 EMKE convocó un Concurso Internacional de obras para banda junto con la Asociación “Musikagileak”. La agrupación organiza asimismo conciertos solidarios ayudando a ACNUR, refugiados o colectivos damnificados.
En el año 2016 fue galardonada con el Premio UPV - Orfeón Donostiarra a su trayectoria musical. El actual director de EMKE es Alain Ayerdi.

**17** igandea - domingo
urria
octubre

## Diana

**10:00etan**
Herriko kaleetan

Errenteriako Udal Txistulari Taldea
Xabier Vesga, zuzendaria

## Eliz musika

**11:45ean**
Andre Mariaren Zeruratzea Parrokia
Parroquia Santa María de la Asunción

Junkal Guerrero — Requiem *Arimen besarkadan* *

*Estreinaldi nagusia

Andra Mari Abesbatza
Alize Mendizabal, organoa
Andoni Sierra, zuzendaria

## Txistu eta Banda emanaldia

**12:30ean**
Koldo Mitxelena Ikastetxea

Errenteriako Udal Txistulari Taldea
Mikel Crespo, Ibon Pikabea, tronpetak
Xabier Vesga, zuzendaria

### Txistu

Eusebio Basurko — *Las Larras*
*Zortziko*
*Minuetoa*
*Fandango*
*Ariñ-Ariñ*
Eusebio Basurko — *Artzai kantak*
J. I. Ansorena, mold.
Michel Labèguerie — *Gasteria berria*
Eusebio Basurko — *Alkate soinua*

### Txistu eta Banda

Tomás Aragüés Bernad — *Doinu alaiak*
Félix y Julián Lavilla — *Junto a la ermita*
Julián Lavilla — *Errenderi*

Errenteriako Musika Kultur Elkarteko Banda
Alain Ayerdi, zuzendaria

### Banda

Mertxe Isasti — *Fanfarre*
Emilio Arrieta — *Las manzanas de oro. Jota*

**Igande jarduna**
**Jornada dominical**

# BILBAO SINFONIETTA



Bertsio koherente eta arriskutsuen bidez, hainbat testuingurutan musika klasiko-garaikideko errepertorioei heltzeko gai den ganbera-orkestra balioaniztuna eta malgua.
Ibilbide luzeko musikariek osatzen dute, eta sorreratik, bere inguruneko sormen-espazioaren eraldaketa hartzen du funtsezko helburutzat, tokiko talentuan oinarrituz eta elkarrekin elikatzen diren diziplina edo hizkuntza artistikoen arteko ezohiko trukeak sustatuz. Horrela, diziplina anitzeko ikerketa-lan garrantzitsua egiten du, antzerkiarekin, dantzarekin edo bideo-sorkuntzarekin sinergiak batuz.
Angeles Blancas eta Naroa Intxausti sopranoekin, Simón Orfila baritonoarekin, Lucía Lacarra dantzariarekin, Barbora Horáková Joly eszena zuzendariarekin eta Bilboko Koral Elkartearekin, Traspasos antzerki konpainiarekin eta Circle of Trust dantza konpainiarekin elkarlanean aritu dira.
Berriki, Manuel de Fallaren irudiari eskainitako lan diskografiko bat grabatzen amaitu dute, María Toledo kantariarekin batera, IBS Classical diskoetxearentzat. Lehen esperientzia honen ondoren, Arnold Schönbergen musikan oinarritutako hurrengo proiektu baterako eskaini du bere burua orkestrak.

Orquesta de cámara polivalente y flexible capaz de abordar repertorios de música clásica-contemporánea en diversos contextos a través de versiones coherentes y arriesgadas.
Integrada por músicos de larga trayectoria, desde su fundación asume como objetivo esencial la transformación del espacio creativo de su entorno, apoyándose en el talento local y promoviendo intercambios inusuales entre disciplinas o lenguajes artísticos que se nutren entre sí. De esta manera, desarrolla una importante labor de investigación multidisciplinar, sumando sinergias con el teatro, la danza o la vídeo-creación.
Han colaborado con la formación solistas como las sopranos Ángeles Blancas y Naroa Intxausti, el barítono Simón Orfila, la bailarina Lucía Lacarra, la directora de escena Barbora Horáková Joly y agrupaciones como la Sociedad Coral de Bilbao, la compañía de teatro Traspasos o la compañía de danza Circle of Trust.
Recientemente han finalizado la grabación de un trabajo discográfico dedicado a la figura de Manuel de Falla junto a la cantaora María Toledo para el sello IBS Classical, discográfica que tras esta primera experiencia se ha ofrecido a volver a contar con la orquesta para un próximo proyecto centrado en la música de Arnold Schönberg.

bilbaosinfonietta.com

# MARTÍNEZ, Jone



Sopelan (Bizkaia) jaio zen 1990ean, eta Leioa Kantika Korala haur-abesbatzan abesten hasi zen, gitarra-ikasketak egiten zituen bitartean. Ondoren, Bilboko "Juan Crisostomo de Arriaga" kontserbatorioan Olatz Saituarekin kantuan trebatu zen.
Musika Hizkuntzaren Pedagogian eta Musika Hezkuntzan lizentziaduna da Musikenen, eta kantuko goi-mailako ikasketak ere egin zituen, Maite Arruabarrena mezzosopranoaren eta Maciej Pikulski piano-jotzaile laguntzailearen eskutik. Musikeneko interpretazio klasikoko espediente onenaren Kutxa Ikasketen Amaiera Saria jaso zuen. Bestalde, Carlos Menarekin ikasketak sakondu zituen, antzinako musikan espezializatuz.
Santa Maria Kapera, Conductus Ensemble, Paramezzo Antico eta Soinuaren Bidaia taldeetako abeslaria da, eta bakarlari gisa Galizia, Burgos, Nafarroa, RTVE, Granada eta Sevillako orkestra sinfonikoekin kolaboratu du.
2020ko denboraldian, Bachen *Magnificat* eta *Tilge Höchster* salmoa interpretatu zituen Galiziako Orkestra Sinfonikoarekin, eta Euridiceren papera Glucken *Orfeon* Granadakoarekin, baita Arriagaren *Herminie* kantata ere, Carlos Menaren zuzendaritzapean. Era berean, *Vivaldi, hari eta bi ahotsetrako poema* obrako protagonista izan zen Calixto Bieitoren zuzendaritzapean.

Nacida en Sopela (Bizkaia) en 1990, comenzó su formación vocal cantando en el coro infantil Leioa Kantika Korala, a la vez que realizaba estudios de guitarra para, posteriormente, formarse en canto con Olatz Saitua en el Conservatorio “Juan Crisóstomo de Arriaga” de Bilbao.
Es licenciada en Pedagogía del Lenguaje Musical y Educación Musical por Musikene, centro en el que también realiza los estudios superiores de canto de la mano de la mezzosoprano Maite Arruabarrena y el pianista acompañante Maciej Pikulski, habiendo recibido el Premio Fin de Estudios Kutxa al mejor expediente en interpretación clásica de Musikene. Por otro lado, amplía su formación con Carlos Mena, especializándose en música antigua.
Es cantante habitual de la Capilla Santa María, Conductus Ensemble, Paramezzo Antico y Soinuaren Bidaia, y ha colaborado como solista con las orquestas sinfónicas de Galicia, Burgos, Navarra, RTVE, Granada y Barroca de Sevilla.
Durante la temporada 2020 interpretó el *Magnificat* y el salmo *Tilge Höchster* de Bach con la Orquesta Sinfónica de Galicia y el papel de Eurídice en el *Orfeo* de Gluck con la de Granada, además de la cantata *Herminie* de Arriaga bajo la dirección de Carlos Mena, con quien también interpreta varios programas de dúos y cantatas que han sido programados en varios festivales de música antigua. Asimismo, protagonizó la obra *Vivaldi, poema para cuerda y dos voces* bajo la dirección escénica de Calixto Bieito.

jonemartinez.com

# SÁNCHEZ, Iker



Bilbao Sinfoniettako zuzendari artistikoa eta Opus Lírica opera konpainiako zuzendari musikala da. Ikasketa ezberdinak egin ditu. Instrumentista gisa Donostian, Bordelen eta Munichen ikasi zuen. Orkestrako zuzendari ikasketak Peter Eötvos, Szolt Nagy, Jesús López Cobos eta Arturo Tamayorekin egin zituen. Ikasten zuen bitartean hainbat zuzendariren laguntzailea izan zen, Raymond Leppard, Rafael Frühbeck de Burgos, Juanjo Mena, Vasily Petrenko, Pablo González edo Michael Jurowsky, Boston Symphony orkestran, Los Angeles Philharmonic, Orchestre Philharmonique de Luxembourg edo Royal Liverpool Philharmonic Orchestran, esate baterako.
2006an BOSen zuzendari laguntzaile lehiaketa irabazi zuen, bi denboraldirako. Bere karreran pizgarri bat izan zen, maisu eta bakarlari handiekin lan egitea ahalbidetu baitzion.
Ordutik, orkestra sinfoniko ospetsuak zuzendu ditu, besteak beste, Bilbo, Euskadi, Asturiasko Printzerria, Tenerife, Porto Casa da Música, Bartzelona eta Kataluniako Nazionalekoa, Bayonne-Côte Basque, Montenegro eta Berlingo Humboldt Unibertsitatekoa. Eszenari dagokionez, Mozarten *Die Zaubertflöte* eta *Don Giovanni*, Donizettiren *L'elisir d'amore*, Fallaren *El amor brujo*, Rotaren *La ardilla astuta*, Guridiren *El caserío* eta Sorozabalen *La Tabernera del puerto* zuzendu ditu, besteak beste.
Orkestra gazteen munduari oso lotua eta musika garaikidearen hedapenarekin konprometitua, sortu berri diren lan ugari estreinatu ditu eta talde instrumental ugari sortu ditu, hala nola TI-04 (Gasteiz), Krater Ensemble (Donostia) edo Bilbao Sinfonietta bera. Beste formazio espezializatu batzuk zuzentzera ere gonbidatu ohi dute, hala nola SMASH Ensemble (Salamanca), Kabos Ensemble (Bilbo), Creart-Project (Londres), Ensemble Residencias (Madril) edo l'ORBCB-ko ensenblea (Baiona).

Director artístico de Bilbao Sinfonietta y musical de la compañía de ópera Opus Lírica, su formación ha recorrido diferentes etapas: como instrumentista, estudió en San Sebastián, Burdeos y Múnich y, como director de orquesta, asiste a las clases de los maestros Peter Eötvos, Szolt Nagy, Jesús López Cobos y Arturo Tamayo. Estos años de formación los pudo compaginar y desarrollar como director asistente de grandes nombres de la dirección orquestal, como Raymond Leppard, Rafael Frühbeck de Burgos, Juanjo Mena, Vasily Petrenko, Pablo González o Michael Jurowsky, en Orquestas como Boston Symphony, Los Angeles Philharmonic, Orchestre Philharmonique de Luxembourg o Royal Liverpool Philharmonic Orchestra.
En 2006 ganó el concurso de director asistente en la BOS para dos temporadas, hecho que supuso un revulsivo en su carrera pues le permitió trabajar junto a grandes maestros y solistas.
Desde entonces ha dirigido prestigiosas orquestas sinfónicas, como las de Bilbao, Euskadi, Principado de Asturias, Tenerife, Oporto Casa da Música, Barcelona y Nacional de Cataluña, Bayonne-Côte Basque, Montenegro o la de la Universidad Humboldt de Berlín, entre otras. En el ámbito escénico, ha dirigido títulos como *Die Zaubertflöte* y *Don Giovanni* de Mozart, *L'elisir d'amore* de Donizetti, *El amor brujo* de Falla, *La ardilla astuta* de Rota, *El caserío* de Guridi o *La tabernera del puerto* de Sorozabal.
Muy ligado al mundo de las jóvenes orquestas y comprometido con la difusión de la música contemporánea, ha estrenado numerosas obras de nueva creación, además de haber fundado varias agrupaciones instrumentales, tal es el caso de TI-04 (Vitoria-Gasteiz), Krater Ensemble (Donostia) o la propia Bilbao Sinfonietta, además de ser habitualmente invitado a dirigir otras formaciones especializadas, como SMASH Ensemble (Salamanca), Kabos Ensemble (Bilbao), Creart-Project (Londres), Ensemble Residencias (Madrid) o el Ensemble de l'ORBCB (Bayonne).

ikersanchez.com

# 20
urria
octubre

**asteazkena- miércoles**
**19:00etan**
**Niessen Kulturgunea**

## Asier Lopez Iraola

- *Bigarren sexua**
  Monodrama filosofikoa sopranoa eta kamera talderako
  (”Libretto”-a: Simone de Beauvoir-en liburuaren laburpena)

*Estreinaldi nagusia

## Bilbao Sinfonietta

**Ander Erburu,** flauta, piccoloa
**Javier Roldán,** klarinetea, klarinete baxua
**Enekoitz Martinez,** biolina
**Ricardo Cuende,** biola
**Elena Escalza,** biolontxeloa

**Jone Martínez,** sopranoa

**Nerea Ganzarain,** eszena zuzendaria
**Iker Sánchez,** musika zuzendaria

Areto berean, 18: 00etan, Irene Arrarats Lizeagak solasaldi bat eskainiko du. Berak itzuli du Eskafandra argitaletxearentzat Simone de Beauvoirren *El segundo sexo* liburua. Bertan izango dira ere Lorea Agirre Dorronsoro argitaletxeko arduraduna eta *Jakin* aldizkariko zuzendaria, eta Asier Lopez Iraola musikagilea eta Iker Sánchez musika-zuzendaria.

A las 18:00 horas se celebrará en la misma sala un coloquio a modo de contextualización de la obra, con Irene Arrarats Lizeaga como ponente principal, traductora al euskara de *El segundo sexo* de Simone de Beauvoir para la editorial Eskafandra, Lorea Agirre Dorronsoro, responsable de la editorial y directora de la revista *Jakin*, y con la presencia del compositor y del director musical.

# Angel UNZU TRÍO & Andrzej OLEJNICZAK



Taldea Donostiako Lugaritz Kultur Etxeko Jon Etxezarraga zuzendariaren ekimenez sortu zen, 2018an. Unzuri deitu zion berak nahi zuen formatuan kontzertu bat proposatzeko, eta laukote elektrikoa sortzea erabaki zuen – Gonzalo Tejada baxu-jotzailearekin, Juan Manuel Urriza bateria-jotzailearekin eta Andrzej Olejniczak saxo-jotzaile eta klarinete-jotzailearekin batera – Polonian elkarrekin eskainitako kontzertuan lau musikarien artean emandako sintonia onari esker.
Bere errepertorioa, *Orain* (Moskito Records, 2021) diskoan jasoa, bere konposizio propioetan oinarritzen da oso-osorik, bai gitarra-jotzailearen obra zaharren moldaketak, bai talde honentzat berariaz idatzitako beste sortu berriak. Gainerako taldekideen ekarpenak ere garrantzitsuak dira.
Proiektu berri honetan, Unzu ibilbide akustiko luzetik aldentzen da alderdi elektriko eta elektroniko bat garatzeko; izan ere, bere hitzetan, orain "orro" eta "oihu" egin behar baitu.

Formación surgida en 2018 por iniciativa de Jon Etxezarraga, director del Centro Cultural Lugaritz de Donostia, quien telefoneó a Unzu para proponerle un concierto en el formato que él quisiera y que finalmente optó por la formación de cuarteto eléctrico –junto al bajista Gonzalo Tejada, el baterista Juan Manuel Urriza y el saxofonista y clarinetista Andrzej Olejniczak– gracias a la buena sintonía que hubo entre los cuatro músicos en un concierto liderado por el saxofonista en el que coincidieron en Polonia.
Su repertorio, recogido en la grabación discográfica *Orain* (Moskito Records, 2021), se basa íntegramente en composiciones propias, tanto adaptaciones de obras antiguas del guitarrista como otras de nueva creación escritas específicamente para este grupo, si bien contando con importantes aportaciones del resto de los integrantes.
En este nuevo proyecto, Unzu se aleja de una larga trayectoria acústica para desarrollar una vertiente eléctrica y electrónica, pues, según sus propias palabras, ahora necesita “rugir” y “gritar”.

**21** urria octubre

osteguna - jueves
19:00etan
Niessen Kulturgunea

## Angel Unzuren azken diskoaren aurkezpena laukote elektrikoan

Presentación del último disco de Angel Unzu, en formación de cuarteto eléctrico

**ORAIN (Moskito Rekords, 2021)**

**Angel Unzu**, kitarra
**Gonzalo Tejada**, baxua
**Juanma Urriza**, bateria
**Andrzej Olejniczak**, saxoak, klarinete baxua

# Eragiyok Abesbatza

ERAGIYOK Abesbatza 2018ko azaroan sortutako ahots grabeen abesbatza da eta bere kideek aurreko esperientzia handia biltzen dute.
Bere sorkuntza kultura musikala orokorrean eta, zehatzago, euskal abesbatzen musika tradizioa zabaltzeko eta indartzeko ahaleginean oinarrituta dago, arreta berezia jarriz folkloreari eta euskal konpositoreek sortutako eliz-musikari, baina aldi berean beste kultura batzuetako obrak ere lantzen ditu, esaterako, errusiar folklorea, operako errepertorio lirikoa eta zarzuela.
Eneko Amundarain Irastorzak (Irun, 1992) zuzentzen du 2018ko abenduan Errenterian ospatutako LXXII Gabon Abesti Sariketa Probintzialean hasi zenetik. Ordutik, Euskal Herriko hainbat herritan eman ditu kontzertuak, hala nola, Andoainen, Baionan, Bidarten, Getarian eta Astigarragan. 2020an XIII Antxon Sierra Oroituz (Donostia) eta XXI. Zortzikoteen Nazioarteko Jaialdian (Portugalete) parte hartu zuen.



Eragiyok Abesbatza es un coro de voces graves creado en noviembre de 2018 por cantores con amplia experiencia previa en el mundo coral.
Su creación se sitúa en el deseo de preservar, fortalecer y difundir la tradición musical y coral haciendo hincapié en su compromiso con el folklore y la música sacra de compositores vascos y navarros pero trabajando a su vez obras de otras culturas como por ejemplo la rusa, y repertorio lírico de ópera y zarzuela.
Dirigido por Eneko Amundarain Irastorza (Irun, 1992), inicia su andadura con la participación en el LXXII Concurso Provincial de Villancicos celebrado en Errenteria en diciembre de 2018. Desde entonces, ha actuado en diferentes lugares como Andoain, Baiona, Bidarte, Getaria o Astigarraga. En 2020 participa en el ciclo musical XIII Antxon Sierra Oroituz (Donostia) y en el XXI Festival Internacional de Ochotes de Portugalete.

# Donosti Ereski Abesbatza

Donosti Ereski abesbatza 1971n sortu zen Juan Urteagaren zuzendaritzapean. Euskal Herrian emanaldiak eskaintzeaz gain, bere ibilbide luzean nazioarteko jaialdi garrantzitsuetan parte hartu du, hala nola Donostiako Musika Hamabostaldian, Santanderren, Fanoko Cittean (Italia), Atenasen, etab. Birak egin ditu Danimarkan, Italian, Alemanian, Estatu Batuetan, Txekian, eta Espainiako hiri askotako ekitaldietan parte hartu du.
Donosti Ereski abesbatzak urrezko dominak jaso ditu nazioarteko hainbat lehiaketetan, hala nola Tolosan eta Toursen, eta sariak Estatuko beste lehiaketa batzuetan.
Gaur egungo zuzendaria, Jon Aizpuru Mallea, 1983an jaioa, Irungo kontserbatorioan eta Ametsa abesbatza Kultur Elkartean hasi zen musika ikasten, Musikenen koru Zuzendaritzan graduatuz. Kup Taldea eta Kea Ahots Taldea bezalako abesbatzetan parte hartu du eta Euskal Herriko hainbat tokitan ikastaroak jaso eta eman ditu. Gaur egun, abesbatzako jarduerak, Musikeneko orkestra-zuzendaritzako ikasketekin uztartzen ditu.



El coro Donosti Ereski inició sus pasos en 1971 bajo la dirección de Juan Urteaga. Además de su presencia en Euskal Herria, en su larga trayectoria ha participado en importantes Festivales Internacionales, como la Quincena Musical de Donostia, Santander, Citté de Fano (Italia), Atenas, etc. Ha realizado giras por Dinamarca, Italia, Alemania, Estados Unidos, Chekia…, y ha participado en eventos de numerosas ciudades de España.
Donosti Ereski ha recibido medallas de oro en certámenes internacionales como Tolosa y Tours, y premios en otros certámenes estatales.
Su actual director, Jon Aizpuru Mallea, nacido en 1983, comienza sus estudios musicales en el conservatorio de Irun y la Sociedad Cultural Coro Ametsa, graduándose en Dirección Coral en Musikene. Ha colaborado en diversas formaciones corales como Kup Taldea y Kea Ahots Taldea y ha recibido e impartido cursos en diversos lugares de Euskal Herria. En la actualidad, compagina la actividad coral y estudios de dirección orquestal en Musikene con Arturo Tamayo.

donostiereski.com

# Landarbaso Abesbatza

1991 urtearen bukaeran sortu zen Errenterian eta, egun, bataz beste 29 urteko 49 abeslarik osatzen dute. Taldea, hasieratik, Iñaki Tolaretxipiren musika-zuzendaritzapean egon da.
Landarbasok errepertorio zabala lantzen du, hainbat garai eta estilotakoa, bai obra profano eta baita eliza obrak ere abestuz. Korurako euskal abesti ugari estreinatu ditu. Landarbaso abesbatzak euskal folkloreari lotutako obrak sortu eta harmonizatzen ditu, eta *Konplize ditut eta…*, *Landarbaso Munduan I* eta *II* edo *Landarbaso 25!* egitasmoak publikoaren aurrean aurkeztu ditu. Taldeak 2016 urtean bere 25. urteurrena ospatu zuen, eta ordutik haur eta gazte taldeak ere baditu.
Abesbatzak azken urteotan penintsulan zehar ziklo, lehiaketa eta kontzertu askotan parte hartu du, eta 2001etik aurrera abesbatza nazioarte mailako lehiaketetatik gonbiteak jasotzen hasi zen, sari garrantzitsuak eskuratuz. Landarbaso Abesbatzak 4 sari nazional eta nazioarteko 16 ditu.
9 disko grabatu ditu eta horietatik aipagarriena bere 25. urtemuga zela eta 2016an grabatu zuten *Konplize ditut eta…* diskoa da.



Landarbaso Abesbatza se fundó a finales del año 1991 y en la actualidad está compuesta por 49 coralistas, con una edad media que ronda los 29 años. Desde sus comienzos, ha estado bajo la dirección musical de Iñaki Tolaretxipi.
El coro abarca un programa muy variado, interpretando obras de diversas épocas y estilos, tanto profanas como religiosas. Ha estrenado numerosas obras corales vascas. Landarbaso realiza trabajos de creación y armonización del folklore vasco, ofreciendo al público proyectos como *Konplize ditut eta…*, *Landarbaso Munduan I eta II* o *Landarbaso* 25!. Desde el 2016, año del 25 aniversario de la agrupación, se suman a la entidad el grupo infantil y el juvenil.
Ha participado en numerosos ciclos y conciertos, iniciando en 2001 su participación en diversos concursos corales internacionales, con el logro de un total de 4 premios nacionales y 16 internacionales.
Ha participado en 9 proyectos discográficos, destacando entre ellos el mencionado *Konplize ditut eta…* grabado en 2016 con motivo de su 25 aniversario.

landarbaso.com

# Andra Mari Abesbatza

Errenterian 1966an José Luis Ansorenak (1928-2019) sortua, Andra Mari Abesbatzak koru musikan genero guztiak jorratzen ditu, euskal musikan espezializatua badago ere.
Gure herrian sortako musika zaintzeko eta promozionatzeko beharrak zirela eta sortu zituen, José Luis Ansorenaren eskutik, 1973an Errenterian geroztik urtero egiten den Musikaste jaialdia eta, 1974an, berriz, Eresbil - Musikaren Euskal Artxiboa.
Bere ibilbidean nabarmentzekoak dira grabatu dituen hemeretzi diskoak, Estatuko jaialdi nagusienetan parte-hartzeak, eta hainbat orkestrekin emandako kontzertuak: besteak beste, Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin, Bilbokoarekin, Espainiako Nazionalarekin, Tenerifekoarekin, Galiziakoarekin, Mahler Chamber Orchestrarekin, Frankfurt Irratiaren Orkestrarekin, Scottish Chamber Orchestrarekin… eta, beste askoren artean, M. Honeck, F. Brüggen, P. Herreweghe, J.J. Mena, A. Boreyko eta A. Orozco-Estrada, maisu handiek zuzenduta.
Egun Andoni Sierra da erakundearen zuzendari artistikoa.



La necesidad de conservación y promoción de la música creada en nuestro país hizo que, bajo la dirección de José Luis Ansorena, en 1973, creara el festival de música vasca MUSIKASTE y, en 1974, ERESBIL –Archivo Vasco de la Música.
Fundada en Errenteria en 1966 por José Luis Ansorena (1928-2019), la Coral Andra Mari cultiva todo género de música coral, aunque su especialidad es la música vasca.
En su trayectoria destacan la grabación de diecinueve discos, su participación en los principales festivales del Estado y las colaboraciones con diferentes orquestas sinfónicas: Orquesta Sinfónica de Euskadi, Orquesta Sinfónica de Bilbao, Orquesta Sinfónica de Tenerife, Orquesta Sinfónica de Galicia, Madrid, Orquesta Nacional de España, Mahler Chamber Orchestra, Radio Frankfurt, Scottish Chamber Orchestra..., bajo la dirección de maestros de la talla de M. Honeck, F. Brüggen, P. Herreweghe, J.J. Mena, A. Boreyko, o A. Orozco-Estrada, entre otros.
En la actualidad Andoni Sierra es el encargado de la dirección artística de esta entidad.

andramariabesbatza.eus


12
poco rall

**22** urria octubre

**ostirala - viernes**
**19:00etan**
**Lekuona Fabrika**

## Eragiyok Abesbatza

**Eneko Amundarain**, zuzendaria

Tomás Aragüés Bayarte — *Pequeña suite vasca*
*I. Ene emaztea*
*II. Joan nintzen Ainoara*
Tomás Aragüés Bernad — *Oi lore maitea*
Luis Aramburu — *Alkar-izketan*

## Donosti Ereski Abesbatza

**Jon Aizpuru, Jokin Otamendi**, zuzendariak

David Azurza — *Bone Pastor*
Benito Lertxundi / Jon Aizpuru, mold. — *Nere herriko neskatxa maite*
Ken Zazpi / Xabier Sarasola, mold. — *Itsasoa gara*
Eva Ugalde / Liber usualis — *Zure magalera* *

**María Martín**, sopranoa
**Ángel Amolategi**, baritonoa
**Loreto Aramendi**, organoa
**Jon Aizpuru**, pianoa

## Landarbaso Abesbatza

**Iñaki Tolaretxipi**, zuzendaria

Josu Elberdin — *Mare nostrum*
Laura Jēkabsone / Maddalen Dorronsoro — *Zoriontasun hitzak*
Mikel Laboa / Moisés Bautista, mold. — *Txoria txori*

**Miren Gabirondo**, piano eta akordeoia
**Iñaki Letamendia**, perkusioa
**Francisco Herrero**, biolina
**Oinkari Dantza Taldea**

## Andra Mari Abesbatza

**Andoni Sierra**, zuzendaria

Iñigo Casalí — *Orain berrogei urte*
Conde de Peñaflorida / Josu Elberdin, mold. — *Adiyo probintziya*
Xabier Sarasola — *Hiru euskal doinu*

**Irene Arrieta**, pianoa

*Estreinaldi nagusia

**Koruen eguna**
**Día Coral**

# Euskal Herriko Gazte Orkestra (EGO)

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak sortu zuen 1997an, eta BBK, Kutxa eta Vital Fundazioen laguntza izan du hasieratik.
Bere helburu nagusia herrialdeko gazte instrumentistentzako prestakuntza-tresna bihurtzea da, askotariko ekimenen bidez. Ekimen horien artean, nabarmentzekoak dira urtean zehar antolatutako topaketak. Horietan, orkestra-errepertorioa praktikatuz eta aztertuz, eta ospe handiko irakasleen ikuskaritzapean, interprete gazteek hainbat programa lantzeko aukera dute, banaka zein sekzioka. Lan hori amaitzeko, kontzertu-bira bat egiten dute.
Erreferentziazko formazio sinfonikoetatik datozen irakasleen laguntza izaten dute, hala nola Vienako eta Municheko Filarmonikoak, London Sympla Orchestra, Bavariako Irratiko Sinfonikoa, Amsterdamgo Concertgebouw, Royal Philharmonic Orchestra, Gran Teatre del Liceuko Orkestra, George Enescu Philharmonic Orchestra eta Euskadiko Orkestra Nazionala.
Asier Polo, Marta Zabaleta, Aitzol Iturriagagoitia, Jone Martínez eta Eneko Sagardoy bakarlariak, besteak beste, eta Euskal Herriko Gazte Abesbatza eta Aukeran Dantza Taldea EGOrekin lankidetzan aritu izan dira.
Juanjo Mena (1997-1998), Enrique Ugarte (1999), Juanjo Ocón (2000-2019) eta, 2020tik aurrera, Rubén Gimeno izan dira EGOko zuzendari artistikoak.



Creada en 1997 por el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, ha contado desde sus inicios con la colaboración de las Fundaciones BBK, Kutxa y Vital.
Su principal objetivo es convertirse en una herramienta de formación para jóvenes instrumentistas del país a través de iniciativas diversas. Entre estas iniciativas destacan los encuentros organizados a lo largo del año. En ellas, practicando y analizando el repertorio orquestal, y bajo la supervisión de profesores de reconocido prestigio, los jóvenes intérpretes tienen la oportunidad de elaborar diversos programas, tanto individuales como por secciones. Un trabajo que culmina con una gira de conciertos.
Cuentan con el apoyo de profesores procedentes de formaciones sinfónicas de referencia como las Filarmónicas de Viena y Múnich, la London Sympla Orchestra, la Sinfónica de la Radio de Baviera, la Concertgebouw de Amsterdam, la Royal Philharmonic Orchestra, la Orquesta del Gran Teatre del Liceu, la George Enescu Philharmonic Orchestra y la Orquesta Nacional de Euskadi.
Los solistas Asier Polo, Marta Zabaleta, Aitzol Iturriagagoitia, Jone Martínez y Eneko Sagardoy, entre otros, han colaborado con la formación, al igual que Euskal Herriko Gazte Abesbatza y Aukeran Dantza Taldea.
Juanjo Mena (1997-1998), Enrique Ugarte (1999), Juanjo Ocón (2000-2019) y, a partir de 2020, Rubén Gimeno han sido los directores artísticos de la EGO.

egofundazioa.eus

# GIMENO, Rubén



Valentzian jaio zen 1972an, eta klarinete eta biolin ikasketak Joaquín Rodrigo Goi Mailako Musika kontserbatorioan egin zituen. Ondoren, Bruselako Conservatoire Royale de Musiquen sartu zen, non Premier Prix eta Diplome Supérieura lortu zituen biolin eta ganbera musikako espezialitateetan.
Orkestra-zuzendaritzan James Ross maisuaren eskutik hasi zen, Marylandeko Unibertsitateane graduatuz (AEB). Ondoren, Stockholmeko kontserbatorioan Jorma Panularekin ikasi zuen, eta Alan Gilbert, Gustav Meier, Leonard Slatkin edo Esa-Pekka Salonenen eskolak ere jaso zituen, eta Orkestra Zuzendaritzako Goi Mailako Diploma lortu zuen.
Orquestra Simfònica del Vallèsen zuzendari titularra, Galiziako Gazte Orkestra Sinfonikoaren zuzendari artistikoa eta JONDEren laguntzailea izan da.
Zuzendari gonbidatu gisa Espainiako orkestra gehienekin kolaboratu du, besteak beste, Euskadiko Orkestra, BOS, Galiziako Orkestra Sinfonikoa, ONE, Tenerifeko Orkestra Sinfonikoa, OSPA, OSCyL, Malagako Orkestra, Valentziako Orkestra, OBC eta Gran Teatre del Liceuko Orkestra.
Gure mugetatik kanpo, Norrköping Sympla Orchestra, Gävle Sympla Orchestra, Genevako Ganbera Orkestra, MMCK (Japonia), Marylandeko Unibertsitateko Orkestra, SAMI Sinfonietta (Suedia) eta Kolonbiako Orkestra Nazionala zuzendu ditu. Era berean, hainbat bakarlarirekin lan egin du: Lang Lang, Midori, Violeta Urmana, Steven Isserlis, Dimitri Sitkovetsky, Fazil Say, Gabriela Montero, Behzod Abduraimov, María Bayo, Michel Camilo, etab.
Euskadiko Orkestrarekin Claves zigilurako grabatu du, euskal musikagileen sailaren baitan, eta 2020tik, EGOko zuzendari artistikoa da.

Nacido en València en 1972, cursó estudios de clarinete y violín en el Conservatorio Superior de Música Joaquín Rodrigo, para posteriormente ingresar en el Conservatoire Royale de Musique de Bruselas, donde obtuvo el Premier Prix y el Diplome Supérieur en las especialidades de violín y música de cámara.
Sus inicios en la dirección de orquesta vinieron de la mano del maestro James Ross, graduándose en la Universidad de Maryland (EE.UU.). Posteriormente estudió en el Conservatorio de Estocolmo con Jorma Panula, recibiendo asimismo clases de Alan Gilbert, Gustav Meier, Leonard Slatkin o Esa-Pekka Salonen, y obteniendo el Diploma Superior en Dirección de Orquesta.
Ha sido director titular de la Orquestra Simfònica del Vallès, director artístico de la Joven Orquesta Sinfónica de Galicia y asistente de la JONDE. Como director invitado ha colaborado con gran parte de las orquestas españolas, entre otras, la Euskadiko Orkestra, BOS, Orquesta Sinfónica de Galicia, ONE, Orquesta Sinfónica de Tenerife, OSPA, OSCyL, Orquesta de Málaga, Orquesta de Valencia, OBC y Orquesta del Gran Teatre del Liceu.
Fuera de nuestras fronteras, ha dirigido la Norrköping Symphony Orchestra, Gävle Symphony Orchestra, Orquesta de Cámara de Ginebra, Orquesta del MMCK (Japón), Orquesta de la Universidad de Maryland, SAMI Sinfonietta (Suecia) y la Orquesta Nacional de Colombia. Asimismo, ha colaborado con solistas de la talla de Lang Lang, Midori, Violeta Urmana, Steven Isserlis, Dimitri Sitkovetsky, Fazil Say, Gabriela Montero, Behzod Abduraimov, María Bayo, Michel Camilo, etc.
Ha grabado con Euskadiko Orkestra para el sello Claves, dentro de su serie de compositores vascos, y, desde 2020, es el director artístico de la EGO.



23 urria octubre

larunbata - sábado
19:00etan
Lekuona Fabrika

## Euskal Herriko Gazte Orkestra, EGO

**Rubén Gimeno**, zuzendaria

| | |
|---|---|
| José Luis Marco | *Meditación* |
| Beatriz Arzamendi | *Hacia la sal ...*<br>*Introducción: Aguasal 1*<br>*Sal de Perla*<br>*Sal Gema*<br>*Epílogo: Aguasal 2* |
| Beltrán Pagola | *Sinfonieta vasca*<br>*Allegro moderato*<br>*Idilio (a orillas del arroyo) Andante*<br>*Allegretto scherzando*<br>*Allegro vivo* |
| Juan Crisóstomo de Arriaga | *Sinfonía en Re*<br>*Adagio. Allegro vivace*<br>*Andante*<br>*Minuetto Allegro*<br>*Allegro con moto* |

**Amaierako kontzertua**
**Concierto de clausura**

# MUSIKAGILEAK
## Compositores





ARAGÜÉS BAYARTE, Tomás
ARAGÜÉS BERNAD, Tomás
ARÁMBARRI, Jesús
ARAMBURU, Luis
ARRIAGA, Juan Crisóstomo de
ARRIETA, Emilio
ARZAMENDI, Beatriz
AZURZA, David
BASURKO, Eusebio
CANTELOUBE, Joseph
CASALÍ, Iñigo
DORRONSORO, Maddalen
ELBERDIN, Josu
FERNÁNDEZ ARBÓS, Enrique
FIGUERIDO, César
GARMENDIA GOYENECHE, Mª Isabel
GUERRERO, Junkal
GUETARY, Pedro
HERMOSA, Gorka
ISASTI, Mertxe
JĒKABSONE, Laura
KEN ZAZPI
LABÈGUERIE, Michel
LABOA, Mikel
LAVILLA, Julián
LERTXUNDI, Benito
LOPEZ IRAOLA, Asier
MARCO, José Luis
PAGOLA. Beltrán
SARASATE, Pablo
SARASOLA, Xabier
SOROZABAL, Pablo
UGALDE, Eva
UNZU, Angel
ZUBELDIA, Emiliana

ARAGÜÉS BAYARTE, Tomás

## ARAGÜÉS BAYARTE, Tomás

Tausten (Zaragoza) jaio zen 1903an. Zaragozako kontserbatorioan ikasi zuen, Ramón Borobiarekin, besteak beste. Hijarreko (Teruel) Udal Bandako zuzendaria izan zen, baita Zaragozako Miliziako bandakoa ere. 1940an, oposizio bidez, Bartzelonako Orfeoiaren zuzendari kargua lortu zuen, eta, geroago, Bilboko Juan Crisóstomo Arriaga Kontserbatorioko Harmoniako eta Konposizioko Katedra.

Abesbatza erlijioso eta profanorako musika, bandarako musika eta musika sinfonikoa idatzi zituen. Bere lanen artean nabarmentzekoak dira *El 21 de abril* (1921), *Tríptico Hispano* (1944), una *Obertura de concierto* (1935) edo *San Ignacio de Loyola en Aránzazu* (1956) poema sinfonikoa, eta *El Patrón* (1930), *Flor de verbena* (1942), *Percal y Mahón* (1946), *Pinocho en el bazar (1947), El mesón de la alegría (1947), Gente de Cuchilleros (1949), La estrella de Madrid (1951), Inmaculada y Reina (1954)* eta *El gran teatro del mundo* auto sakramentala. Barakaldon hil zen 1956ko azaroaren 7an.

Nació en Tauste (Zaragoza) en 1903. Realizó sus estudios en el Conservatorio de Zaragoza, entre otros con Ramón Borobia. Fue director de la Banda Municipal de Híjar (Teruel) así como de la Banda de la Milicia en Zaragoza. En 1940 obtuvo por oposición el cargo de director del Orfeón Baracaldés y, más tarde, la Cátedra de Armonía y Composición del Conservatorio Juan Crisóstomo Arriaga de Bilbao.

Es autor de obras corales religiosas y profanas, música para banda y música sinfónica. Entre su obra destacan títulos como las suites *El 21 de abril* (1921), *Tríptico hispano* (1944), una *Obertura de concierto* (1935) o el poema sinfónico *San Ignacio de Loyola en Aránzazu* (1956), y las obras escénicas *El Patrón* (1930), *Flor de verbena* (1942), *Percal y Mahón* (1946), *Pinocho en el bazar* (1947), *El mesón de la alegría* (1947), *Gente de Cuchilleros* (1949), *La estrella de Madrid* (1951), *Inmaculada y Reina* (1954) o el auto sacramental *El gran teatro del mundo*.

Falleció en Baracaldo el 7 de noviembre de 1956.

# ARAGÜÉS BERNARD, Tomás

Albalate del Arzobispon (Teruel) jaio zen 1935eko urriaren 19an. Bilboko kontserbatorioan egin zituen musika-ikasketak, eta, ondoren, nazioarteko hainbat hobekuntza-ikastarotan parte hartu zuen. Donostiako Goi Mailako Kontserbatorioko Orkestra eta Abesbatzen Zuzendaritzako katedraduna izan zen, baita Donostiako Talde Barrokoaren (1974-1979) eta Easo abesbatzaren (1977-1986) zuzendaria ere. 1980an, Donostiako Kontserbatorioko Orkestra berria antolatu zen, eta bertako zuzendari ere izan zen (1980-1996).

Hainbat konposizio sari ditu: Torreviejako koru masentzako habaneren konposizio lehiaketa (1977 eta 1978); Asturiasko gaiei buruzko koru konposizioaren sari nazionala Oviedon (1980 eta 1981); Nazioarteko konposizio saria Erroman (1980); Tolosako abesbatzen lehiaketa (1980 eta 1981); Banda Sinfonikoentzako Nazioarteko I. konposizio lehiaketa (Valentzia, 1982).

Lan sinfoniko eta koral askoren egilea da: *Sinfonia del Ebro* (1961), *Gure Etxea* (1963), *Tronpa eta orkestrarako kontzertua* (1973), *Lau espazio sinfoniko* (1984), *Biolin eta orkestrarako kontzertua* (1988), *Gabonak* (abesbatza eta orkestra, 1990), *Euskal Requiem* (1991), *Sinfonia baterako salmoak* (1995-2004), *Diamantino Kontzertua*, *IGNATIUS* opera (2009-2011), *Te Deum* (2012-2014), *Sinfonía versus "ochenta"* eta *Ruten Liburua (2018)* poema sinfoniko-korala.

Nace en Albalate del Arzobispo (Teruel) el 19 de octubre de 1935. Realiza sus estudios musicales en el Conservatorio de Bilbao, con posteriores asistencias a cursos internacionales de perfeccionamiento. Ha sido Catedrático de Dirección de Orquesta y Coros del Conservatorio Superior de San Sebastián, así como director del Conjunto Barroco de San Sebastián (1974-1979) y del Coro Easo (1977-1986). En 1980 se organiza la nueva Orquesta del Conservatorio Donostiarra, de la que también fue director (1980-1996).

Tiene en su haber varios premios de composición: Concurso de Composición de Habaneras para Masas Corales en Torrevieja (1977 y 1978); Premio Nacional de Composición Coral sobre temas asturianos en Oviedo (1980 y 1981); Premio Internacional de Composición en Roma (1980); Certamen de Masas Corales de Tolosa (1980 y 1981); I Concurso Internacional de Composición para Bandas Sinfónicas (Valencia, 1982).

Es autor de buen número de obras sinfónicas y corales: *Sinfonía del Ebro* (1961), *Gure Etxea* (1963), *Concierto para Trompa y Orquesta* (1973), *Cuatro espacios sinfónicos* (1984), *Concierto para Violín y Orquesta* (1988), *Navidad* (coro y orquesta, 1990), *Euskal Requiem* (1991), *Salmos para una Sinfonía* (1995-2004), *Concierto Diamantino* (2009), la ópera *IGNATIUS* (2009-2011), *Te Deum* (2012-2014), *Sinfonía versus "ochenta"* (2015) o el poema sinfónico-coral *El libro de Rut* (2018).

# ARÁMBARRI, Jesús

Bilbon jaio zen 1902ko apirilaren 13an. Bizkaiko Musika Kontserbatorioan pianoa, organoa, harmonia eta konposizioa ikasi zituen Fuster, Guridi eta Basaberekin. "Juan Carlos Gortázar" sariari esker, 1928an Parisen ikasketak zabaldu zituen Paul Le Flem, Paul Dukas eta Vladimir Golschmannekin, nork orkestra-zuzendaritzan barneratu zuen. Ondoren, Felix Weingartnerren aholkuak jaso zituen Basilean.
1932an oposizio bidez Bilboko Udal Bandako zuzendari kargua irabazi zuen eta urte berean hiri bereko Orkestra Sinfonikoko zuzendari izendatu zuten. 1953an, Madrilgo Udal Bandako zuzendari titular izendatu zuten, eta harmoniako irakasle izan zen Errege Musika Kontserbatorioan.
Hainbat estreinaldi sinfoniko egin zituen, grabazioetan orkestra-zuzendari gisa zuen balioa jasoz.
Konpositore gisa, hainbat generotako musika idatzi zuen: ganbera: *Cuarteto* (1929), *Minueto y rondó para orquesta de cuerda* (1931); bokala: *Ocho canciones vascas* (1931); sinfonikoa: *Cuatro impromptus* (1929), *Fantaisie espagnole* (1929), *In memoriam* (1930), *Gabon-zar sorgiñak* (1930), *Dedicatoria* (1949); sinfoniko-korala: *Castilla* (1938) poema; eszenikoa: *La mesonera de Tordesillas* (1928) zarzuela, *Aiko-Maiko* (1932), balleta edo *Viento sur* (1952) narrazio lirikoa.
Madrilen hil zen 1960ko uztailaren 11n.

Nació en Bilbao el 13 de abril de 1902. Estudió piano, órgano, armonía y composición en el Conservatorio Vizcaíno de Música con Fuster, Guridi y Basabe. Gracias a la obtención del premio "Juan Carlos Gortázar", en 1928 amplió estudios en París con Paul Le Flem, Paul Dukas y Vladimir Golschmann, quien lo inició en la dirección orquestal. Posteriormente, recibió consejos de Felix Weingartner en Basilea.
En 1932 ganó por oposición el cargo de director de la Banda Municipal de Bilbao y ese mismo año fue nombrado director de la Orquesta Sinfónica de la misma ciudad. En 1953 fue nombrado director titular de la Banda Municipal de Madrid, además de ejercer como profesor de armonía en el Real Conservatorio de Música.
Protagonizó diversos estrenos sinfónicos, dejando constancia en grabaciones de su valía como director de orquesta.
Como compositor, escribió música en diversos géneros: cámara: *Cuarteto* (1929), *Minueto y rondó para orquesta de cuerda* (1931); vocal: *Ocho canciones vascas* (1931); sinfónica: *Cuatro impromptus* (1929), *Fantaisie espagnole* (1929), *In memoriam* (1930), *Gabon-zar sorgiñak* (1930), *Dedicatoria* (1949); sinfónico-coral: el poema *Castilla* (1938); escénica: la zarzuela *La mesonera de Tordesillas* (1928), el ballet *Aiko-Maiko* (1932) o la narración lírica costumbrista *Viento sur* (1952).
Falleció en Madrid el 11 de julio de 1960.

# ARAMBURU, Luis

Gasteizen jaio zen 1905ean. Musikagile, organista eta piano-jotzailea izan zen, eta bere aitarekin, Juan Santiagorekin, egin zituen lehen musika-ikasketak. Harmonia José Domingo de Santa Teresa jaunarekin ikasi zuen eta piano, organo, biolontxelo eta tronpa ikasketak Bilboko kontserbatorioan baliozkotu zituen.

Abesbatzen munduari lotuta, San Migel Goiaingeruaren parrokia-abesbatzaren zuzendaritza hartu zuen, eta lan hori Gasteizko beste abesbatza batzuen zuzendaritzarekin batera egin zuen, hala nola Eusko Abesbatzarekin, Vesa abesbatzarekin eta Gasteizko Orfeoiarekin.

Gasteizko Musika Kontserbatorioko piano irakaslea eta bertako zuzendaria izan zen 1974tik 1979ra.

Konpositore emankorra, aurkeztu izan zen konposizio lehiaketa guztietan saritua izan zen.

Bere lanen zerrendan musika erlijiosoa da nagusi: 25 meza, 50 ereserki, moteteak, gabon-kantak, salmoak, etab. Baina erromantzak eta abesbatzarako obrak, 50 baino gehiago, txisturako musika, musika sinfonikoa eta talde instrumental ezberdinentzako beste obra asko ere idatzi zituen.

Gasteizen hil zen 1999ko maiatzaren 5ean.

Nació en Vitoria-Gasteiz en 1905. Compositor, organista y pianista, realizó sus primeros estudios musicales con su padre, Juan Santiago. Estudió armonía con el P. José Domingo de Santa Teresa y convalidó sus estudios de piano, órgano, violonchelo y trompa en el Conservatorio de Bilbao.

Vinculado al mundo coral, asumió la dirección del coro parroquial de San Miguel Arcángel y simultaneó dicha labor con la dirección de otras corales vitorianas como la Coral Eusko Abesbatza, los coros Vesa y el Orfeón Vitoriano.

Fue profesor de piano del Conservatorio de Música de Vitoria y director del mismo desde 1974 hasta 1979.

Compositor prolífico, llegó a ser premiado en todos los concursos de composición a los que se presentó.

Su lista de obras presenta un amplísimo predominio de música religiosa: 25 misas, 50 himnos, motetes, villancicos, salmos, etc. Pero también es autor de un gran fondo de romanzas y obras corales, más de 50, música para txistu, música sinfónica, y otras obras para grupos instrumentales diversos.

Falleció en Vitoria-Gasteiz el 5 de mayo de 1999.

ARRIAGA, Juan Crisóstomo de

# ARRIAGA, Juan Crisóstomo de

Bilbon jaio zen 1806an. Lehen musika-eskolak bere aitaren eskutik jaso zituen, eta Fausto Sanz Santiagoko kaperako biolinistarekin ikasten jarraitu zuen. Bere lehen lana 11 urterekin idatzi zuen. 13 urterekin *Los esclavos felices* opera konposatu zuen, Bilbon 1820an estreinatu zena. Hurrengo urtean Parisera joan zen bertako kontserbatorio ospetsuan ikastera. Irakasle izan zituen Fétis kontrapuntuan eta fugan, eta Baillot biolinean. Frantziako hiriburuan idatzi zituen bere lanik garrantzitsuenak: musika erlijiosoa (*Misa* edo *Salve Regina*, gaur egun galduak), *Stabat Mater*, ahots larri eta sokarako, ariak eta bikote dramatikoak (*Edipo, Medea, Erminia* edo *Agar et Ismael*) eta musika instrumentala (*Tres cuartetos de cuerda* eta *Sinfonía a Gran Orquesta*).
Parisen hil zen 1826an, hogei urte bete gabe.

Nació en Bilbao en 1806. Recibió las primeras lecciones musicales de su padre, continuándolas con el violinista de la capilla de Santiago, Fausto Sanz. Su primera obra la escribió a la edad de 11 años. Con 13 años compuso la ópera *Los esclavos felices*, que se estrenó en Bilbao en 1820. Al año siguiente marchó a París para estudiar en el famoso conservatorio. Tuvo como profesores a Fétis en contrapunto y fuga, y Baillot en el violín. En la capital francesa escribió sus obras más importantes: música religiosa como una *Misa* o un *Salve Regina* hoy perdidas, el *Stabat Mater*, para voces graves y cuerda, arias y dúos dramáticos como *Edipo*, *Medea*, *Erminia* o *Agar et Ismael* y música instrumental como los *Tres cuartetos de cuerda* y la *Sinfonía a Gran Orquesta*.
Falleció prematuramente en París el año 1826, sin haber llegado a cumplir los veinte años.

# ARRIETA, Emilio

Emilio Arrieta Corera Garesen (Nafarroa) jaio zen 1821ean. 17 urterekin, bere gurasoak hil zirenean, Madrilera joan zen. Perelli eta Mandanicirekin pianoa eta harmonia ikasi ondoren, Milaneko kontserbatorioan onartu zuten, eta bertan Nicola Vaccaj-ekin konposizioa ikasi zuen (1839-1846). Garai hartan musika liriko italiarra ezagutzeko aukera izan zuen. *Ildegonda* operarekin konposizio-saria lortuz karrera amaitu zuen. Itzuleran, La España Musical elkartean parte hartu zuen, Eslava, Barbieri, Basili, Gaztanbide eta Espainiako operaren garapena bultzatu nahi zuten beste konpositore batzuekin batera. Espero ziren emaitzak lortu ez zituenez, Milanera itzultzekoa zen, baina Elisabet II erreginak "maisu kantari" izendatu zuen1848an. *Ildegonda* (1849) eta *La conquista de Granada* (1850) opera estreinatu zituen Madrilgo Errege Jauregiko Antzokian. Antzokiaren itxieraren ondorioz, Italiara itzuli zen, non *Ildegonda* lehen aldiz antzeztu zen Teatro di Re antzokian (1851). Itzultzean, La Nación egunkariarekin kolaboratu zuen, espainiar musikari buruzko artikuluak idatziz. 1852 eta 1866 artean bere zarzuela nagusietako batzuk idatzi zituen, hala nola *El dominó azul* (1852) eta *Marina* (1856), bere obrarik ospetsuena. 1857an Errege Kontserbatorioko konposizio irakasle izendatu zuten eta 1868an bertako zuzendari izatera pasa zen, hezkuntza hobekuntzak bultzatuz eta ibilbide bikaineko konpositoreen prestakuntzan funtsezko lan pedagogikoa garatuz, Chapí, Bretón, Serrano eta abar. Barbieri eta Gaztanbiderekin batera, XIX. mendeko bigarren erdialdeko espainiar antzerki lirikoaren irudi nagusia izan zen. Arrietaren lanen ezaugarria italiar estiloa da. Zarzuela handia sendotzen lagundu zuen eta bufo generoaren ezarpenean parte hartu zuen obra kopuru handi batekin. Konpositore emankorra, 50 zarzuela inguru eta opera ugari konposatu zituen, baita obra sinfonikoak, kantatak, lied eta instrumentu bakanentzako obrak ere. Emilio Arrieta Madrilen hil zen 1894an.

Emilio Arrieta Corera nace en Puente la Reina en 1821. Al fallecer sus padres, con 17 años, se traslada a Madrid. Estudia solfeo con Marcelino Castillo, pero, ante las cualidades demostradas, se traslada a Milán. Tras cursar estudios de piano con Perelli y armonía con Mandanici, ingresa en el Conservatorio (1839-1846), donde estudia composición con Nicola Vaccaj. Durante estos años conoce el repertorio italiano de música lírica. Termina la carrera obteniendo el premio de composición con la ópera *Ildegonda*. A su vuelta, participa en la sociedad La España Musical junto a Eslava, Barbieri, Basili, Gaztambide y otros compositores que pretendían impulsar el desarrollo de la ópera española. Al no obtener los resultados esperados, se dispone a volver a Milán, pero la reina Isabel II le nombra maestro cantor en 1848. Estrena *Ildegonda* (1849) y la ópera *La conquista de Granada* (1850) en el Teatro del Real Palacio de Madrid. Al clausurarse este, vuelve a Italia, donde se representa *Ildegonda* en el Teatro di Re (1851). A su regreso colabora con el diario La Nación, escribiendo artículos sobre la música española. Entre 1852 y 1866 compone algunas de sus principales zarzuelas, como *El dominó azul* (1852) y *Marina* (1856), la más célebre de sus obras. En 1857 es nombrado profesor de composición del Real Conservatorio y en 1868 pasa a ser su director, impulsando mejoras educativas y desarrollando una labor pedagógica fundamental en la formación de grandes futuros compositores como Chapí, Bretón, Serrano, etc.

Junto con Barbieri y Gaztambide fue la principal figura del teatro lírico español de la segunda mitad del siglo XIX. Caracterizado por la presencia del estilo italiano, contribuyó a la consolidación de la zarzuela grande y participó en el establecimiento del género bufo. Compositor prolífico, compuso cerca de 50 zarzuelas y numerosas óperas, además de obras sinfónicas, cantatas, *lied* y obras para instrumentos solos. Falleció en Madrid en 1984.

# ARZAMENDI, Beatriz

ARZAMENDI, Beatriz

Arrasaten jaio zen, 1961ean. Bere aita Juan Arzamendik sortutako Arrasate Musical akademian hasi zituen biolin ikasketak, Donostiako kontserbatorioan jarraitu zituen eta geroago Londresen Julia Fraperekin ikasi zuen. Era berean, orkestra-konposizioa eta zuzendaritza Madrilgo Goi Mailako Musika Kontserbatorioan ikasi zituen. Luis de Pablo, Sergiu Comissiona, Antoni Ros Marbà edo Sergiu Celibidache bezalako maisuekin ikasi zuen.

Konpositore eta zuzendari lanak irakaskuntzarekin uztartzen ditu, hezkuntza ertaineko institutuetan zein kontserbatorioetan eskolak emanez.

Emakume konpositoreen lana zabaltzeko duen nahiak bultzatuta, ganbera-orkestra bat sortzeko proiektu baten sustatzailea izan da, eta hainbat kongresu, aste eta jaialditan parte hartu du, hala nola Mexikon egindako Emakumeak Artean izeneko Iberoamerikako Topaketetan.

Korurako, ganbera-musikarako eta orkestra-musikarako obren egilea da, eta bere obrak hainbat ziklo eta jaialditan estreinatu eta interpretatu dira. Musikagileak konpositoreen elkarteko kidea da.

Nace en Mondragón, Gipuzkoa, en 1961. Inicia sus estudios de violín en la academia Arrasate Musical, fundada por su padre Juan Arzamendi, continuándolos en el Conservatorio de Donostia y más adelante en Londres, con Julia Frape. Estudia asimismo composición y dirección de orquesta en el Real Conservatorio Superior de Música de Madrid. Amplía sus estudios con maestros como Luis de Pablo, Sergiu Comissiona, Antoni Ros Marbà o Sergiu Celibidache.

Compagina sus actividades de compositora y directora con la docencia, habiendo impartido clases tanto en institutos de enseñanza media como en conservatorios.

Fruto de su inquietud por difundir la obra de las mujeres compositoras, ha sido promotora de un proyecto para crear una orquesta de cámara, así como ha asistido a diversos congresos, semanas y festivales como los Encuentros Iberoamericanos de Mujeres en el Arte celebrados en México.

Es autora de obras para coro, música de cámara y música orquestal, siendo sus obras estrenadas e interpretadas en diversos ciclos y festivales. Es miembro de la asociación de compositores Musikagileak.

AZURZA, David

## AZURZA, David

Tolosan (Gipuzkoa) jaio zen 1968an. Arte Ederretan lizentziatua da eta kontratenore ikasketak Isabel Alvarezekin egin zituen. Madrilgo Goi Mailako Kontserbatorioan kantuko "Lucrecia Arana" saria jaso zuen.
Capilla Peñaflorida (antzinako musikan espezializatuak) eta KEA (musika garaikidea) taldeetako kide da. Abesbatza, talde instrumental eta orkestrekin kolaborazioak egin ditu, Euskal Herrian eta atzerrian.
Zenbait operen estreinaldi absolutu eta grabaziotan protagonista paperak izan ditu: Tomás Marcorena (2003), Mauricio Sotelorena (2006), Eduardo Pérez Masedarena (2006), José Mª Sánchez Verdúrena (2007), Luis de Pablorena (2010), Pilar Juradorena (2011) eta Juan José Eslavarena (2011).
Bere kabuz ikasi duen konpositorea da, ahotsetarako musikara mugatzen da bere lana gehien bat. Bere obrak ezagutzera emateko 2004 urtean *Oihu hau* argitaletxea sortu zuen, 80 obra baino gehiago editatu dituelarik: korurako moldaketak, bere konposizioak, ipuin musikalak eta ganberarako opera bat (*Altzoko Haundia, txikien opera*, 2011).

Nace en Tolosa (Gipuzkoa) en 1968. Licenciado en Bellas Artes. Se forma como contratenor con Isabel Alvarez. Premio extraordinario "Lucrecia Arana" de canto en el Conservatorio Superior de Madrid.
Es miembro de los grupos vocales Capilla Peñaflorida (música antigua) y KEA (contemporánea). Ha trabajado con infinidad de grupos vocales, instrumentales y orquestales en otros tantos proyectos dentro y fuera de nuestras fronteras.
Ha realizado y participado en diversos estrenos absolutos y primeras grabaciones de óperas contemporáneas de Tomás Marco (2003), Mauricio Sotelo (2006), Eduardo Pérez Maseda (2006), José Mª Sánchez Verdú (2007), Luis de Pablo (2010), Pilar Jurado (2011), Juan José Eslava (2011).
Compositor autodidacta, su actividad se centra exclusivamente en el ámbito vocal. Más de 80 obras editadas, desde arreglos corales, composiciones propias, cuentos musicales y una ópera de cámara (*Altzoko Haundia, txikien opera*, 2011) en *Oihu hau* Musika, el sello editorial creado por él en 2004 para difundir su obra.

**http://www.oihuhau.com/**

BASURKO, Eusebio

## BASURKO, Eusebio

Orion jaio zen 1856an eta 1921ean Donostian hil zen. Donostiako Udal Txistulari Bandako zuzendaria, bere garaian ospe handia lortu zuen, bai interprete bezala zuen trebetasunagatik, bai bere konposizioengatik. Nabarmentzekoa da *Música euskara para trío de silbos* bilduma (1895), Donostiako Udaleko sustapen batzordeari aurkeztua eta Txistulari aldizkarian argitaratua. Bilduma honek txistu, silbote eta atabalerako lan folklorikoak biltzen ditu.

Nació en Orio en 1856 y falleció en 1921 en Donostia. Director de la Banda Municipal de Txistularis de San Sebastián, logró gran fama en su época, tanto por su habilidad como intérprete como por sus composiciones. Destaca su colección de *Música euskara para trío de silbos* (1895), presentada a la comisión de fomento del Ayuntamiento de San Sebastián y editada en la revista Txistulari. Esta colección incluye obras de carácter folklórico para txistu, silbote y atabal.

## CANTELOUBE, Joseph

CANTELOUBE, Joseph

Annonayn (Frantzia) jaio zen 1879an eta Gridnyn hil 1957an. 1901etik Vincent d'Indyrekin ikasi zuen Schola Cantorumen, eta laster interesatu zen bere konposizioetan inspiratu zuen bere eskualdeko musikaz. Frantziako *Herri-kantuen antologia* bat argitaratu zuen, tartean euskal herri-doinu batzuk, ahots eta piano eta orfeoirako harmonizatuak.

Nació en Annonay (Francia) en 1879 y falleció en Gridny en 1957. Estudió con Vincent d'Indy en la Schola Cantorum desde 1901 y pronto se interesó por la música de su región, que le inspiró en sus composiciones. Publicó una *Antología de cantos populares franceses*, entre los que incluía varias melodías populares vascas, armonizadas para voz y piano y para orfeón.

## CASALÍ, Iñigo

CASALÍ, Iñigo

Iruñean jaio zen 1972an. Irakasle, interprete eta konpositorea da eta 1999tik Iruñeko Pablo Sarasate musika-kontserbatorioko flauta, ganbera-musika eta antzinako musika tailerreko irakaslea da.
Interprete gisa, bere flautista eta abeslari alderdia nabarmentzen da, Ensemble Durendal, Lachrimae Consort, Ensemble Diatessaron, Los Músicos de Su Alteza, Iruñeko Katedraleko Musika Kapera, Tolosako Orfeoia, Conductus Ensemble, Harmonía del Parnàs, Música Ficta eta Victoria Musicae taldeekin elkarlanean arituz. Händelen *Mesias* eta Pepuschen *Eskalearen operetan* bakarlari gisa aritu izan da.
Nafarroako Ganbera Abesbatzako kide eta zuzendariordea ez ezik, Iruñeko Orfeoiaren Gazte Abesbatzako zuzendaria ere bada.
Bere lanen artean, *Flauta eta hari laukoterako kontzertua*, *Biola eta hari orkestrarako kontzertua* eta *Gabonetako oratorio* bat eta *Ali Baba y los 40 ladrones* eta *El flautista de Hamelin* haurrentzako operak nabarmendu behar dira.

Nace en Pamplona en 1972. Docente, intérprete y compositor, desde 1999 trabaja en el Conservatorio de música Pablo Sarasate de Pamplona como profesor de flauta de pico, de música de cámara y en el Taller de Música Antigua.
Como intérprete, destaca su faceta de flautista y de cantante, habiendo colaborado con los grupos Ensemble Durendal, Lachrimae Consort, Ensemble Diatessaron, Los Músicos de Su Alteza, la Capilla de Música de la Catedral de Pamplona, el Orfeón Tolosarra, Conductus Ensemble, Harmonía del Parnàs, Música Ficta y Victoria Musicae. También ha actuado como solista en *El Mesías* de Händel y en *La ópera del mendigo* de Pepusch.
Es miembro y subdirector de la Coral de Cámara de Navarra y director del Coro Juvenil del Orfeón Pamplonés.
Entre su obra cabe destacar el *Concierto para flauta y cuarteto de cuerda,* el *Concierto para viola y orquesta de cuerda,* un *Oratorio de Navidad,* y las óperas infantiles *Alí Baba y los 40 ladrones* y *El flautista de Hamelin.*

## DORRONSORO, Maddalen

Bere lehen musika ikasketak Lezoko Tomás Garbizu Musika Eskolan egin zituen, biola eta kantuko ikasketak eginez. Euskal Herriko Abesbatzen Elkarteak antolatutako abesbatza zuzendaritza ikastaroak egin ditu maisu handiekin. 2005. urtetik Landarbaso Abesbatzan abesten du eta 2009az geroztik zuzendariaren laguntzaile lanetan ari da eta 2012az geroztik ahots teknikako irakaslea eta arduraduna da. Zuzendari lanetan Gipuzkoako zenbait talde eraman ditu, eta 2009. urteaz geroztik Oiartzungo Lartaun Abesbatzako zuzendaria ere bada. 2009tik 2016ra Easo Musika Eskolako Araoz Gaztetxo abesbatzako zuzendaria izan da eta 2016az geroztik Landarbasoko Dizdizka eta Kontari proiektuaren arduraduna da.

Inicia sus estudios musicales en la Escuela de Música Tomás Garbizu de Lezo, en las especialidades de canto y viola. Ha realizado múltiples cursos de dirección coral organizados por la Federación de Coros del País Vasco.
Coralista desde el 2005 en Landarbaso Abesbatza, en 2009 realiza labores como ayudante de dirección y en 2012 como profesora y responsable del área de técnica vocal.
Ha dirigido varios coros guipuzcoanos y, desde el año 2009, dirige el Coro Lartaun de Oiartzun. Entre 2009 y 2016 dirigió el coro infantil Araoz Gaztetxo de la Escuela de Música del Coro Easo y desde 2016 es responsable de Landarbasoko Dizdizka y Kontari, agrupaciones corales pertenecientes a Landarbaso Abesbatza.

## ELBERDIN, Josu

1976an jaio zen Pasaian (Gipuzkoa). Pianoa, kantua eta harmonia ikasi ditu. Gizarte Diplomatua da EHUn. Pasaiako Udal Musika Eskolan musika irakasten du, hainbat abesbatza zuzentzen ditu eta Trintxerpeko (Gipuzkoa) Karmengo Ama parrokiako organista da.
Haurren koru musikaren inguruko ikastaroak eskaini izan ditu. Hainbat abesbatza lehiaketatan sari ugari lortu ditu eta Tolosako Abesbatzen Lehiaketarako enkarguak jaso izan ditu, bai eta hainbat herrialdetako abesbatzenak ere.
Bere jarduera haurrentzako musikan eta, bereziki, abesbatzentzako musikan oinarritzen bada ere, musika sinfoniko, pop-rock edo musika instrumental generoetako obra ugari idatzi ditu.

Nace en Pasaia (Gipuzkoa) en 1976. Ha realizado estudios de piano, canto y armonía. Es también Diplomado Social por la UPV. Se dedica profesionalmente a la enseñanza musical en la Escuela Municipal de Música de Pasaia, a la dirección de varios coros y es organista de la parroquia de Nª Sra. del Carmen en Trintxerpe (Gipuzkoa).
Imparte de forma regular cursos relacionados con la música coral infantil. Ha obtenido premios en diversos concursos corales y ha recibido encargos tanto del Certamen de Masas Corales de Tolosa como de un progresivo número de corales de diversos países.
Si bien su música está centrada en el ámbito infantil, y en general en la música coral, cuenta también con una importante producción de obras de carácter sinfónico, pop-rock o instrumental.

www.elberdin.com

# FERNÁNDEZ ARBÓS, Enrique

Madrilen 1863an jaiotako zuzendari, biolinista, konpositore eta idazlea, bere aita Cayetano Fernández y Alcautánen eskutik hasi zituen musika ikasketak, Madrilgo kontserbatorioan jarraitu zituen, eta Solfeo (José Gainzaren ikasle gisa), Biolin (Jesús Monasterioren ikasle zela) eta Harmonia (Miguel Galianaren gainbegiradapean) ikasgaietan sariak lortu zituen.
Isabel Borboikoa infantaren laguntzari esker, 1877an Bruselako kontserbatoriora joan zen, F. A. Gevaertek zuzentzen zuena, eta horrek Isaac Albénizekin harremanetan jarri zuen. Henri Vieuxtemps eta Hubert-Ferdinand Kufferath maisuekin lan egin zuen, azken hori Mendelssohn-en ikaslea zena Leipzig-en.
1880an Berlinera joan zen Joseph Joachimekin eta Heinrich von Herzogenbergekin biolina eta konposizioa ikastera. Itzuli zenean, kontzertuak eman zituen Espainiako hainbat hiritan, eta Madrilen aurkeztu zen Kontzertu Elkarteko orkestrarekin, Tomás Bretónen zuzendaritzapean.
Teatro de la Comedian esperientzia pare bat izan ondoren eta Liburutegi Nazionalean kontzertu batzuk eman ondoren, 1904an, Donostiako Kasino Handiko orkestraren buru, zuzendari izateko bokazioa serioski agertzen hasi zen, eta lehen aldiz Madrilgo Orkestra Sinfonikoa zuzendu zuen. Hurrengo urtean, Orkestra Sinfonikoaren zuzendari izendatu zuten, eta nazioarteko karrera bultzatu zuen.
Biolinista eta zuzendari gisa zuen alderditik haratago, konposizioa eta orkestrazioa ere landu zituen, baita hainbat musika idatzi argitaratu eta prentsan kolaboratu ere.
Madrilen hil zen 1939ko ekainaren 2an.

Director, violinista, compositor y escritor nacido en Madrid en 1863, inició los estudios musicales de la mano de su padre, Cayetano Fernández y Alcaután, para continuarlos en el conservatorio de Madrid, donde obtendrá premios en las materias de Solfeo (como discípulo de José Gainza), Violín (siendo alumno de Jesús de Monasterio) y Armonía (bajo la supervisión de Miguel Galiana).
Gracias al apoyo de la infanta Isabel de Borbón, en 1877 se trasladó al conservatorio de Bruselas, dirigido por F. A. Gevaert, quien le pondrá en contacto con Isaac Albéniz. En esta ciudad trabajará con dos maestros, Henri Vieuxtemps y Hubert-Ferdinand Kufferath, este último discípulo de Mendelssohn en Leipzig.
En 1880 se traslada a Berlín para estudiar violín con Joseph Joachim y composición con Heinrich von Herzogenberg. A su regreso dio conciertos en varias ciudades españolas, presentándose en Madrid con la orquesta de la Sociedad de Conciertos, bajo la dirección de Tomás Bretón.
Tras un par de experiencias en el Teatro de la Comedia y en una serie de conciertos en la Biblioteca Nacional, en 1904 empieza a manifestarse seriamente su vocación de director al frente de la orquesta del Gran Casino de San Sebastián y dirigiendo por primera vez la Orquesta Sinfónica de Madrid, de la que será nombrado director al año siguiente y con la que se impulsará su carrera internacional.
Más allá de sus facetas como violinista y director, cultivó también la composición y la orquestación, además de publicar varios escritos musicales y colaborar asiduamente en prensa.
Falleció en Madrid el 2 de junio de 1939.

# FIGUERIDO, César

Cuencan jaio zen 1876an, baina handik urte gutxira familia Irunera bizitzera joan zen. Solfeoa, harmonia eta biolina ikasi zituen bere aitarekin, armadako musikari nagusia zena, eta ondoren, Irungo Udal Akademian sartu zen. 13 urterekin eman zuen lehen biolin-kontzertua Donostiako Kasinoan. 1890ean Parisera joan zen ikasketak zabaltzera, eta Ricardo Viñes pianistarekin hasi zituen bere lehen bira europarrak. Kontzertista-karrera bikaina hasi zuen eta hainbat musikarirekin jo izan zuen; Fabián de Furundarena pianistarekin, esaterako, arrakasta handia izan zuen. Garaiko kritikak Pablo Sarasateren oinordekotzat jo zuen. 1900etik aurrera biolin eskolak eman zituen Irungo Musika Akademian eta musika bandako zuzendaria izan zen. 1913 eta 1919 artean Donostiako Musika Akademiako biolin-irakasle izan zen, non zuzendariorde eta liburuzain ere izan zen.

Kursaal Handiko Ganbera Musika eta Orkestra Elkartea zuzendu zituen (1922-1924), eta Donostiako Orkestra Filarmonikoa sortu zuen (1931-1936). Denborak aurrera egin ahala, irakaskuntzan eta konposizioan zentratu zen, eta bigarren maila batean utzi zuen kontzertista gisa egindako lana.

1930ean Nazioarteko Kontzertu Agentzia sortu zuen eta urte horretan bertan sortu berria zen Donostiako Udal Kontserbatorioko biolin katedra lortu zuen. 1949an euskal kantu herrikoien hiru koaderno argitaratu zituen eta bere bizitzako azken urteetan *Compendio de la técnica del violín* (1952) idatzi zuen, hainbat kontserbatoriotan erabili izan den metodo ofiziala.

Konpositore bezala berak idatzitako ganbera musika nabarmentzen da, batez ere biolin eta pianorako konposatutako obrak. Lan sinfonikoak, biolinerako musika, bandarako jota eta *Elena* zarzuela ere idatzi zituen.

César Figuerido Tolosan hil zen 1956an.

Nace en Cuenca en 1876, pero a los pocos años su familia se traslada a Irún. Estudia solfeo, armonía y violín con su padre, músico mayor del ejército, y posteriormente ingresa en la Academia Municipal de Irún. A los 13 años muestra sus aptitudes musicales, presentándose como violinista en el Casino de San Sebastián. En 1890 amplía sus estudios en París e inicia sus primeras giras europeas con el pianista Ricardo Viñes. Comienza una brillante etapa como concertista tocando junto a distintos músicos, entre los que destaca el pianista Fabián de Furundarena, con quien cosechó grandes éxitos. La crítica de la época le consideró sucesor de Pablo Sarasate. Desde 1900 imparte clases de violín en la Academia de Música de Irún y dirige la Banda de música. Entre 1913 y 1919 trabaja como profesor de violín en la Academia de Música de San Sebastián, donde fue además subdirector y bibliotecario. Dirige la Sociedad de Música de Cámara y la orquesta del Gran Kursaal (1922-1924), y crea la Orquesta Filarmónica de San Sebastián (1931-1936). Con el tiempo, se fue centrando en tareas docentes y en la composición, relegando a un segundo plano su actividad como concertista. En 1930 funda la Agencia Internacional de Conciertos y ese mismo año logra la cátedra de violín del recién creado Conservatorio Municipal de San Sebastián. En 1949 edita tres cuadernos de canciones populares vascas y en la última etapa de su vida escribe *Compendio de la técnica del violín* (1952), método oficial adoptado en diversos conservatorios.

Como compositor destaca su música de cámara, sobre todo las obras compuestas para violín y piano. Su producción incluye también obras sinfónicas, música para violín, una jota para banda y la zarzuela *Elena*. Fallece en Tolosa en 1956.

## GARMENDIA GOYENECHE, Mª Isabel

GARMENDIA GOYENECHE, Mª Isabel

Oiartzunen jaio zen 1964an. Musika ikasketak Donostiako Goi Mailako Musika kontserbatorioan egin zituen, eta bertan Mª Sol Imaz eta Juan Padrosa izan zituen piano-irakasle. Era berean, ganbera-musikako goi-mailako ikasketak egin zituen Christian Ifrimekin.
Francisco Escuderorekin eta José Luis Marcorekin harmonia ikasi zuen, eta kontrapuntu eta fuga ikasketak egin zituen; konposizio ikasketak Pedro de Feliperekin egin zituen, Iruñeko Pablo Sarasate Goi Mailako Musika kontserbatorioan.
Historian lizentziaduna da UNEDen, eta gaur egun pedagogia musikalean dihardu pianoa, harmonia, ganbera-musika eta abesbatzen irakasle gisa Donostiako Academia Arbós musika ikasketen zentroan.

Nace en Oiartzun en 1964. Realiza estudios musicales en el Conservatorio Superior de Música de San Sebastián, donde tiene como profesores de piano a Mª Sol Imaz y Juan Padrosa. Asimismo, realiza estudios superiores de música de cámara con Christian Ifrim.
Estudia armonía con Francisco Escudero y José Luis Marco, y completa su formación realizando estudios de contrapunto y fuga, así como de composición con Pedro de Felipe en el Conservatorio Superior de Música Pablo Sarasate de Pamplona.
Es licenciada en Historia por la UNED y en la actualidad se dedica a la pedagogía musical como profesora de piano, armonía, música de cámara y conjunto coral en el Centro de Estudios Musicales Academia Arbós de San Sebastián.

## GUERRERO, Junkal

GUERRERO, Junkal

Andoainen jaio zen 1968an. Donostiako Kontserbatorioan Solfeo, Piano, Klabe, Musikaren Pedagogia eta Koru Zuzendaritza ikasketak egin zituen. 1995etik 2007ra Javier Bustoren zuzendaritzapean KCK-ko (Kanta Cantemus Korua) kide izateak eragin handia izan zuen formazioko nahiz koruko ibilbidean. Gaur egun, Donostiako Francisco Escudero Kontserbatorio Profesionalean piano-irakasle da, eta zeregin hori zuzendaritza eta korurako konposizio lanekin uztartzen du. 2008tik Luberri Abesbatzako zuzendaria da, eta 2012tik Loinatz Abesbatzakoa. Berak sortutako *Bi bihotz* lana, 2007ko Tolosako Haur Abesbatzen Lehiaketan derrigorrezkoa izan zen, eta *Kalera gazteak* 2011koan. Kantika Korala, Landarbaso Abesbatza, Ganbara Txiki abesbatza eta  Unanue kamara koralerako obrak sortu ditu enkarguz. Musikasteren aurtengo edizioan bere *Arimen besarkadan* (Requiem) obra estreinatuko da, Covid- 19ren pandemiaren garaian abesbatza, bakarlari eta organoarentzat idatzia, eta Errenteriako Andra Mari Abesbatzak eskatua. Haren obrak www.cm-ediciones.com argitaratu ohi ditu.

Nacida en Andoain, Gipuzkoa, en 1968. Es titulada superior en solfeo, piano, clave, pedagogía musical y dirección de coros por el Conservatorio Superior de San Sebastián. La experiencia vivida desde 1995 a 2007 como componente de KCK bajo la dirección de Javier Busto ha dejado una huella imborrable en su formación y trayectoria coral. Actualmente compagina su labor docente como profesora de piano en el Conservatorio Profesional Francisco Escudero con la dirección y composición coral. Es directora de Luberri Abesbatza desde 2008 y de Loinatz Abesbatza desde 2012. Su composición *Bi bihotz* fue obra obligada del Certamen Coral Infantil de Tolosa 2007 y *Kalera gazteak* del de 2011. Ha escrito por encargo para Kantika Korala, Landarbaso Abesbatza, Ganbara Txiki Abesbatza o Unanue Kamara Korala. En la presente edición de Musikaste estrenaremos su obra *Arimen besarkadan* (Requiem) escrita durante la pandemia de la Covid-19 para coro, solistas y órgano, y encargada por la coral Andra Mari Abesbatza de Errenteria. Sus obras están editadas en la editorial CM-ediciones (www.cm-ediciones.com).

**http://junkalguerrero.wordpress.com/**

GUETARY, Pedro

# GUETARY, Pedro

1866an Getarian (Gipuzkoa) jaio eta 1921ean hil zen tenorea. Bere aita danbor-jolearen zuzendaritzapean hasi zituen musika ikasketak herri horretan bertan. Irun eta Bilboko udal danbor-jole plazetara sartu ondoren, bere musika karrera tenore bezala garatu zuen. Gipuzkoako Foru Aldundiaren beka jaso zuen Milanen ikasten jarraitzeko Antonio Selva, Vincenzo Lamperti, Francesco Lombardi eta Pozzorekin eta Scalan ere debutatu zuen.
Italian eta Estatu Batuetan zehar hainbat bira eskaini ondoren, Londresen finkatu zuen bere bizilekua, non, nagusiki, irakaskuntzan aritu zen, eta Covent Garden, Royal College eta Kensington Palace bezalako agertokietan ere abestu izan zuen.
Klasiko eta belkantistiko estiloko errepertorioak, euskal errepertorioko obrekin uztartu zituen.

Tenor nacido en Guetaria (Gipuzkoa) en 1866 y fallecido en 1921. Comenzó sus estudios musicales bajo la dirección de su padre, tamborilero en dicha localidad. Tras acceder a las plazas de tamborilero municipal de Irún y Bilbao desarrolló su carrera musical como tenor, siendo becado por la Diputación de Gipuzkoa para continuar sus estudios en Milán con el maestro Antonio Selva, Vincenzo Lamperti, Francesco Lombardi y Pozzo, llegando a debutar en la Scala.
Tras diversas giras por Italia y Estados Unidos, fijó su residencia en Londres, donde se dedicó principalmente a la docencia, llegando a cantar en escenarios como el Covent Garden, el Royal College y el Palace de Kensington entre otros.
Su repertorio aunó obras de corte clásico y belcantístico junto con otras de repertorio vasco.

# HERMOSA, Gorka

Musika ikasketak Zumarraga, Irun, Donostia eta Gasteizko Eskola eta Kontserbatorioetan egin zituen. Thierry Paillet, Friedrich Lips, Amaia Liceaga eta Carlos Iturralderekin areagotu zituen ikasketak, Larrodeko (Auvergne, Frantzia) E.D. du Thor (Avignon, Frantzia) eta C.N.I.M.A ikastetxeetan akordeoi-formakuntza osatu zuen eta Elsbeth Moser, Eric Pisani, Jean Luc Manca edo Jacques Morneten eskolak jaso zituen.
Akordeoi eskolak eman ditu Valladoliden eta 2003/04 ikasturtetik, Alcañizeko (Teruel) Musika Kontserbatorio profesionalean. Bere zazpi disko argitaratu ditu, eta beste zenbait artistaren hogeita hamar CD baino gehiagotan parte hartu du. Akordeoiaren historiari buruzko lau liburu idatzi ditu, eta gai horri buruzko hitzaldiak hogei herrialde baino gehiagotan eman.
Haren obrak bost kontinenteetako akordeoilariek interpretatu ohi dituzte. *CIA IMC-UNESCO Composition* saria jaso du, eta lau aldiz azken 6 urteetan Confédération Mondiale d 'Accordéon-ek urteko konposizio onenari ematen dion saria. Haren lanak Berliner Philharmoniker edo Washingtongo National Operan ere interpretatu izan dira, baita hainbat herrialdetan: AEB, Brasil, Finlandia, Belgika, Errumania, Lituania, Polonia, Espainia, besteak beste. Film laburren eta TVE2ko hainbat dokumentalen musika konposatu du.

Nacido en Urretxu en 1976, realizó sus estudios musicales en la Escuela y Conservatorios de Zumarraga, Irun, Donostia y Vitoria-Gasteiz. Ha ampliado estudios con Thierry Paillet, Friedrich Lips, Amaia Liceaga y Carlos Iturralde, completado su educación acordeonística en los centros E.D. du Thor (Avignon, Francia) y C.N.I.M.A de Larrode (Auvergne, Francia) y recibido clases de Elsbeth Moser, Eric Pisani, Jean Luc Manca o Jacques Mornet.
Ha impartido clases de acordeón en Valladolid y, desde el curso 2003/04, en el Conservatorio Profesional de Música de Alcañiz (Teruel). Ha publicado siete discos propios y ha participado en más de una treintena de CDs de otros artistas. Ha escrito cuatro libros sobre la historia del acordeón, dando conferencias sobre este tema en más de una veintena de países.
Como compositor, sus obras son habitualmente interpretadas por acordeonistas de los cinco continentes. Ha recibido el premio CIA IMC-UNESCO Composition y 4 veces en los últimos 6 años el premio que la Confédération Mondiale d'Accordéon da a la mejor composición del año. Sus obras han sido interpretadas en lugares como la Berliner Philharmonie o la National Opera de Washington, y sus obras para acordeón y orquesta estrenadas en EE.UU., Brasil, Finlandia, Bélgica, Rumanía, Lituania, Polonia, España... Ha compuesto música para cortometrajes y varios documentales de TVE2.

http://www.gorkahermosa.com

## ISASTI, Mertxe

Zarautzen jaio zen 1965ean. Zazpi urte zituela hasi zituen musika-ikasketak Pilar Echanizekin, bere jaioterrian, eta gero Donostiako Goi Mailako Musika kontserbatorioan jarraitu zituen. Han amaitu zituen goi-mailako akordeoi-ikasketak (Miguel Bikondoa eta Arritxu Ulaciarekin), konposizioa (Francisco Escuderorekin), pedagogia osagarria eta pedagogia espezializatua (Luchy Mancisidorrekin), eta musikologia (José Ignacio Luzuriagarekin).
Solfeo, akordeoi eta harmoniako irakaslea, bere katalogoan pianorako obrak, *Zurriola aldetik*, klarinete laukote bat, *Denok jauzi* fanfarrea, *Harizko laukoterako glosak* laukotea, *Irritsiak* kantata (Gabriel Arestiren *Anaitasuna* poeman oinarritua), *Sinfonieta en un tempo* (orkestrarako), El *Paraíso perdido* suitea eta 1992an Donostiako Musika Hamabostaldian estreinatu zen haize eta perkusiorako zortzikote bat topa ditzakegu. Musikologo lanak ere egin ditu, Zarauzko Aita Frantziskotarren komentuko musika artxiboa katalogatuz.

Nacida en Zarautz en 1965. Comienza sus estudios musicales a los siete años de edad con Pilar Echaniz en su localidad natal, para luego continuarlos en el Conservatorio Superior de Música de San Sebastián, finalizando allí los estudios correspondientes al grado superior de acordeón (con Miguel Bikondoa y Arritxu Ulacia), composición (con Francisco Escudero), pedagogía complementaria y pedagogía especializada (con Luchy Mancisidor), y musicología (con José Ignacio Luzuriaga).
Profesora de solfeo, acordeón y armonía, su catálogo incluye obras para piano, *Zurriola aldetik*, un cuarteto de clarinetes, la fanfarre *Denok jauzi*, el cuarteto *Glosas para cuarteto de cuerda*, la cantata *Irritsiak* (basada en el poema *Anaitasuna* de Gabriel Aresti), la *Sinfonieta en un tempo* (para orquesta), la suite *El paraíso perdido*, y un octeto para viento y percusión estrenado en la Quincena Musical de San Sebastián en 1992. Dedicada también a la labor musicológica, ha catalogado el archivo musical del convento de los Padres Franciscanos de Zarautz.

# JĒKABSONE, Laura

Laura Jēkabsone Latvian Voices ahots taldeko musikagilea, zuzendari artistikoa, abeslari profesionala, musika irakaslea eta zuzendaria da.
Musika Hezkuntzako lizentziatura Letoniako Jāzeps Vītols Musika Akademian lortu zuen eta nazioartean esperientzia hartu du ahots tailer eta konposizio lehiaketa askotan.
Latvian Voices taldearen errepertorioaren zatirik handienaren egilea da, Letonian eta atzerrian konpositore ezaguna izanik. Letoniako Orkestra Sinfoniko Nazionalak, Latvija Estatuko abesbatzak, Tiara Rigako katedraleko emakumeen abesbatzak, The Real Group a capella taldeak (Suedia), Sjaella, Amarcord (Alemania), Magi Ensemble (AEB), Cantabile Voices (Taiwan), Incantare Coro Femenino (Argentina) beste hainbat taldek interpretatu dute bere musika.
2006tik, zuzendaritza-laguntzaile eta coach bokal gisa lan egiten du Letoniako abesbatza misto amateur onenetako batean: Maska-n. Maska abesbatzak bere lehen CDa kaleratu du, *Ziema* [Negua] izenekoa.
Laura "kokle"-rako (letoniar instrumentu tradizionala) idatzitako lehen sinfoniaren egilea da.

Laura Jēkabsone es compositora, directora artística del grupo vocal Latvian Voices, cantante profesional, profesora de música y directora. Obtuvo su licenciatura en Educación Musical en la Academia de Música Letonia Jāzeps Vītols y ha adquirido experiencia internacional en muchos talleres vocales y concursos de composición.
Es autora de la mayor parte del repertorio del grupo Latvian Voices, siendo una reconocida compositora en Letonia y en el extranjero. Su música ha sido interpretada por la Orquesta Sinfónica Nacional Letona, el coro estatal Latvija, el coro de niñas Tiara de la catedral de Riga, el grupo a capella The Real Group (Suecia), Sjaella, Amarcord (Alemania), Magi Ensemble (EE. UU.), Cantabile Voices (Taiwán), Incantare Coro Femenino (Argentina), etc.
Desde 2006 trabaja como asistente de dirección y coach vocal en uno de los mejores coros mixtos aficionados de Letonia: Maska. Este coro ha lanzado su primer CD de autor titulado *Ziema* [Invierno].
Laura es la compositora de la primera sinfonía escrita para el instrumento tradicional letón "kokle".

https://www.laurajekabsone.com/

# KEN ZAZPI

Jon Mikel Arronategik (Exkixuko baxu-jotzailea) eta Eñaut Elorrietak (Lugarriko abeslaria) 1996an sortutako pop-rock taldea. 2000 urtean Igor Artzanegi (baxua), Beñat Serna (gitarra), Iñaki Zabaleta (teklatuak) eta Jon Fresko (bateria) sartu ziren taldean, José Alberto Batiz gitarrista eta ekoizlearen laguntzarekin euren lehen maketa grabatu zuten.

2001ean, *Atzo da bihar* (Gor) lehen diskoa argitaratu zuten, 20.000 ale baino gehiago saldu zituzten eta, 2003an, *Bidean* (Gor) bigarren diskoa argitaratu zuten, antzeko arrakasta lortuz. Bi urte geroago, zuzeneko disko bat argitaratu zuten formatu akustikoan, *Gelditu denbora* (Gor, 2005), eta gainera, argitalpen esklusibo bat atera zuten Kataluniako merkaturako, *Ilargia* (*La Lluna*) eta *Zapalduen olerkia* (*Poema dels oprimits*) abestien bertsioak barne.

2007an diskoetxez aldatu eta *Argiak* (Oihuka) argitaratu zuten, Los Angelesen grabatua Rafa Sardina ekoizlearekin. Lan horretan brit-pop-aren eta power-pop-aren eraginak antzematen dira, eta aurkezpen bira 2009ko urtarrilaren 3an amaitu zuten Donostiako Victoria Eugenia Antzokian. Kontzertu hori *Zazpi urte zuzenean* izenburupean grabatu eta argitaratu zuten.

Ekoizle bera izan zuten lagun *Ortzemugak begietan* (Elkar Argiak, 2010) hurrengo lan diskografikoan, eta Jon Maia eta Maialen Lujanbio bertsolarien eta Uxue Alberdi eta Joseba Sarrionaindia idazleen ekarpenak ere izan zituzten.

Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin batera (2013) disko bat eta DVD bat grabatu ostean, 2015ean euren azken dizkoa argitaratu zuten, *Phoenicoperus*.

Grupo de pop-rock creado en Gernika en 1996 por Jon Mikel Arronategi (bajista de Exkixu) y Eñaut Elorrieta (cantante de Lugarri). El año 2000 se incorporan a la formación Igor Artzanegi (bajo), Beñat Serna (guitarra), Iñaki Zabaleta (teclados) y Jon Fresko (batería), grabando su primera maqueta con la ayuda del guitarrista y productor José Alberto Batiz.

En 2001 se publica su disco de debut, *Atzo da bihar* (Gor), con el que llegan a vender más de 20.000 ejemplares y, en 2003, editan su segundo trabajo discográfico, *Bidean* (Gor), alcanzando un éxito similar. Dos años después publican un disco en directo en formato acústico, *Gelditu denbora* (Gor, 2005), del que además extraen una edición exclusiva para el mercado catalán que incluye las versiones de las canciones *Ilargia* (*La Lluna*) y *Zapalduen olerkia* (*Poema dels oprimits*).

En 2007 cambian de casa discográfica y publican *Argiak* (Oihuka), grabado en Los Ángeles con el productor Rafa Sardina, trabajo en el que se aprecian influencias del brit-pop y el power-pop, y cuya gira de presentación concluirá en el Teatro Victoria Eugenia de Donostia el 3 de enero de 2009, concierto que aprovecharán para grabar y publicar con el título *Zazpi urte zuzenean*.

Contarán con la colaboración del mismo productor para su siguiente trabajo discográfico, *Ortzemugak begietan* (Elkar Argiak, 2010), en el que también tendrán aportaciones de bertsolaris como Jon Maia y Maialen Lujanbio, y de escritores como Uxue Alberdi y Joseba Sarrionaindia para los textos.

Tras grabar un disco y un DVD junto a la Orquesta Sinfónica de Euskadi (2013), en 2015 llega su último trabajo discográfico hasta la fecha, *Phoenicoperus*.

LABÈGUERIE, Michel

## LABÈGUERIE, Michel

Ustaritzen jaio zen 1921ean. Gaztetako udetan Lizarrako P. Hilario Olazaranekin ikasi zuen txistua. Medikuntza ikasi zuen Bordelen, eta neumofisiologian espezializatu zen. 1948an Kanbon (Frantzia) kokatu zen eta 1960an Euskalzaleen Biltzarreko lehendakari hautatu zuten. Poesian murgildu ondoren, Georges Brassensen antzeko estiloarekin konposatzeko erraztasun handia erakutsi zuen.

1961ean bere lehen diskoa argitaratu zuen gitarrarekin batera eta Euskal Kantagintza Berria mugimenduaren sortzaileetako bat izatera iritsi zen.

1962an Frantziako Asanblea Nazionaleko diputatu-akta lortu zuen Pirinio Atlantikoetan, eta bi aldiz aukeratu zuten senatari. 1965etik aurrera hainbat legealditan Kanboko alkate hautatua izan zen; Toulousen hil zen 1980an.

Nació en Ustaritz en 1921. En los veranos de su juventud aprendió el txistu con el P. Hilario Olazarán de Estella. Estudió medicina en Burdeos, especializándose en neumofisiología. En 1948 se instaló en Cambo-les-Bains y en 1960 fue elegido presidente del *Euskalzaleen Biltzarra*. Tras su incursión en la poesía, demostró una gran facilidad para la composición con un estilo similar al de Georges Brassens.

En 1961 editó su primer disco acompañando él mismo sus canciones a la guitarra y llegó a convertirse en uno de los padres fundadores del movimiento *Euskal Kantagintza Berria*.

En 1962 obtuvo el acta de diputado en la Asamblea Nacional Francesa por los Pirineos Atlánticos y fue elegido senador en dos ocasiones. Ostentó la alcaldía de Cambo-les-Bains repetidamente desde 1965 y falleció en 1980 en Toulouse.

## LABOA, Mikel

Mikel Laboa Manzisidor Donostian jaio zen. 1963an Bartzelonara joan zen, bertan ezagutu baitzituen Setze Jutges taldea eta bere musikan garrantzi handia izango zuen *Nova Cançó* catalana mugimendua. 1965 urte ingurutik Mikel Laboa Ez Dok Amairu (1966-1972) taldearen sorreran partehartze handia izan zuen. Benito Lertxundi, Lourdes Iriondo, J.A. Artze, Xabier Lete, Irigarai anaiak, Julen Lekuona, Xabier Lete, Jorge Oteiza edo Nestor Basterretxea bezelako artistek osatzen zuten talde hori.
1969an *Bertolt Brecht'en lau poema (...)* eta *Mikel Laboa* diskoak argitaratu zituen. 1974ean Mikel Laboak *Bat-hiru* disko bikoitza argitaratu zuen (Herri gogoa). 1975 eta 1978 artean bakarlari moduan ematen zituen kontzertuak *Ikimilikiliklik* ikuskizunarekin txandakatu zituen. 1984ean Mikel eszenatokietara bueltatu zen Iñaki Salvador musikariarekin batera.1980. hamarkada amaitzeko bi disko berri argitaratu zituen: *Lekeitioak* (Elkar, 1988) eta *12* (Elkar, 1989).
Gazte musikarengan eragin zuzena izan du. 1990ko ekainean rock munduko 11 musikari eta talde gazteek *Txerokee* diska plazaratu zuten, Laboaren abestien bertsioekin; hurrengo urtean Iparraldeko abeslariek hartu zuten testigantza; eta 1992an Iñaki Salvadorrek *Zilbor hestea* diskoa kaleratu zuen, Laboaren 10 moldaketa instrumentalekin. 1994an *14* (Elkar) izenburua zuen disko berria argitaratu zuen, J. Cage edo Camarón-i eskeinitako abestiekin, beste askoren artean.
2000an EHUko Urrezko Domina jaso zuen Artze anaiak eta Benito Lertxundirekin batera. 2008an Donostian hil zen.

Mikel Laboa Manzisidor nace en Donostia en 1934. En 1963 se traslada a Barcelona donde contacta con el movimiento cultural Setze Jutges de la *Nova Cançó* catalana. Motivado por su experiencia de Barcelona, desde 1965 Mikel participa activamente en la creación de Ez Dok Amairu (1966-1972), grupo formado por escritores, artistas y músicos como Benito Lertxundi, Lourdes Iriondo, J.A. Artze, Xabier Lete, los hermanos Irigarai, Julen Lekuona, Xabier Lete, Jorge Oteiza y Néstor Basterretxea.
En 1969 graba como cantautor los discos *Bertolt Brecht'en lau poema (...)* y *Mikel Laboa*. En 1974 graba el disco doble *Bat-hiru* (Herri gogoa). Entre 1975 y 1978 compagina sus recitales en solitario con las actuaciones de *Ikimilikiliklik*. En 1984 reaparece en los escenarios junto a Iñaki Salvador, finalizando la década con la publicación de dos nuevos discos: *Lekeitioak* (Elkar, 1988) y *12* (Elkar, 1989).
Ha sido grande su influencia en la música joven urbana. En junio de 1990 once músicos y grupos jóvenes del rock vasco sacan el disco *Txerokee* con versiones de sus canciones; al año siguiente es homenajeado por los cantantes de Iparralde y en 1992 Iñaki Salvador saca el disco *Zilbor hestea,* con 10 arreglos instrumentales de canciones de Laboa. En 1994 sale un nuevo trabajo, el disco *14* (Elkar), que incluye canciones en honor a J. Cage o Camarón.
En el año 2000 recibe la Medalla de Oro de la UPV junto a los hermanos Artze y Benito Lertxundi.  Fallece en Donostia en 2008.

## LAVILLA, Julián

LAVILLA, Julián

Ágredan (Soria) jaio zen 1905ean eta Zaragozako Banda Militarrean hasi zuen instrumentista karrera. 1928an musika irakasle eta kontulari plaza lortu zuen Errenteriako Udalean.
Hiribilduan bizi zelarik, bere musika ezagutzak zabaltzea eta hobetzea erabaki zuen Tomás Garbizurekin harmonia klaseetara joanez. Era berean, Errenteriako Udal Akademian Solfeoko irakasle gisa lan oso garrantzitsua egin zuen. Gerraostean, kafeak eta dantza-aretoak girotzen zituzten hainbat orkestratan parte hartu zuen, batez ere Donostian. Los Bohemios, Turrillas orkestra, Juan Herederoren orkestra eta Radio-La Perla orkestraren kasua da, non Lavillak kontrabaxua eta helikoia jo zituen.
Konpositore gisa, batez ere bandarako musika eta orkestrarako dantza ugari idatzi zituen, txistu, ahots eta pianorako abestiak, korurako lan erlijiosoak eta *Elena de Vergara* zarzuela ere konposatu zituen.
Errenterian hil zen 1955eko urtarrilaren 29an.

Nació en Ágreda (Soria) en 1905 e inició su carrera como instrumentista en la Banda Militar de Zaragoza. En 1928 obtuvo la plaza conjunta de profesor de música y contable en el Ayuntamiento de Errenteria.
Ya afincado en la villa, decidió ampliar y perfeccionar sus conocimientos musicales asistiendo a clases de armonía con Tomás Garbizu. Asimismo, desarrolló una importantísima labor como profesor de Solfeo en la Academia Municipal de Errenteria. En la posguerra formó parte de varias orquestinas que amenizaban los cafés y salones de baile, principalmente en San Sebastián. Tal es el caso de Los Bohemios, la orquestina Turrillas, la orquesta de Juan Heredero o la orquesta Radio-La Perla, en las que Lavilla tocó el contrabajo y el helicón.
Como compositor, escribió fundamentalmente música para banda y múltiples bailables para orquestina, aunque también compuso para conjunto de txistus, canciones para voz y piano, obras religiosas para coro y la zarzuela *Elena de Vergara*.
Falleció en Errenteria el 29 de enero de 1955.

# LERTXUNDI, Benito

Orion (Gipuzkoa) jaio zen 1942an eta familiarekin izan zuen lehen harremana musikarekin.
1965ean, beste euskal musikari batzuekin batera, Ez Dok Amairu mugimenduan parte hartu zuen, esperimentazio eta ikaskuntzarako leku bikaina izan zena, eta 1972an desegin bazen ere, bere arrastoa utzi zuen Lertxundi gaztearengan.
1971n argitaratu zen iraupen luzeko lehen diskoa, eponimoa. 1974an, *Oro laño mee batek...* idatzi zuen, eta, 1975ean, *... eta maita herria, üken dezadan plazera*. 1977an *Zuberoa/askatasunaren semeei* disko bikoitza atera zen. 1981ean beste disko bikoitz bat atera zen kalera: *Altabizkar / Itzaltzuko Bardoari*. 1987an argitaratu zen *Mauleko bidean…izatearen mugagabean*. Ondoren, *Pazko gaierdi ondua* (1989) eta *Hunkidura kuttunak* (1993) bilduma iritsiko dira. 2002an *Nere Ekialdean* argitaratu zuen.
2005ean Álvaro Feitok bere lehen gaztelaniazko biografia argitaratu zuen, *Benito Lertxundi: El bardo de Orio*. Urte horretan bertan argitaratu zuen, gainera, bere hurrengo lana: *40 urtez ikasten egonak* (2005), *Itsas ulu zolia* (2008), *Oroimenaren Oraina* (2012), *Ospakizun gauean* (2018) eta *Zuhaitzak landatzen zuen gizona* (2019).

Nació en Orio (Guipúzcoa) en 1942 y su primer contacto con la música fue en el entorno familiar.
En 1965, junto con otros músicos vascos, formó parte del movimiento Ez Dok Amairu que resultó ser un magnífico lugar de experimentación y aprendizaje y, aunque se disolvió en 1972, dejó su huella en el joven Lertxundi.
En 1971 se publica su primer disco de larga duración, de título epónimo. En 1974 compone *Oro laño mee batek...*, y, en 1975, *...eta maita herria, üken dezadan plazera*. En 1977 sale el doble disco *Zuberoa / Askatasunaren semeei*. En 1981 sale a la calle otro disco doble: *Altabizkar / Itzaltzuko Bardoari*. En 1987 se publicó *Mauleko bidean… izatearen mugagabean*. Después llegarán *Pazko gaierdi ondua* (1989) y el recopilatorio *Hunkidura Kuttunak* (1993). En el año 2002 publicó *Nere Ekialdean*.
El año 2005 Álvaro Feito publica su primera biografía en castellano, *Benito Lertxundi: el bardo de Orio*. Ese mismo año sale a la luz, además, su siguiente trabajo: *40 urtez ikasten egonak* (2005), al que seguirán *Itsas ulu zolia* (2008), *Oroimenaren Oraina* (2012), *Ospakizun gauean* (2018) y *Zuhaitzak landatzen zituen gizona* (2019), su último trabajo discográfico hasta la fecha.

**benitolertxundi.com**

## LOPEZ IRAOLA, Asier

Beasainen (Gipuzkoa) jaio zen 1979an. Musikarekin izan zuen lehen kontaktua trash metal taldeetan izan zen, hasieran bateria eta ondoren gitarra eta teklatuak joaz, beti ere entzumenez eginez. Filosofia ikasketak egin zituen Deustuko Unibertsitatean, eta Konposizioko gradua Musikenen. Ikasketa hauek egiten ari zen bitartean, 2008ko udan, bere lehen maketa grabatu zuen eta hurrengo urtean talde bat osatu zuen ikastetxe bereko jazz ikasle ohiekin.

Ordutik, hainbat grabazio egin ditu, bakarka zein hainbat erakunderekin batera, eta musikaren eta hitzaren arteko harremanean jarri du arreta: *Errotik* (2012), *Entelekia* (2013), *Oro bat* (2016) eta *Horrela bizitzeko* bilduma, sei liburukiz osatua, horietatik lau argitaratu ditu jada: *Formazio duala* (2020), *Nihaur* (2020), *Organo-narrazioak* (2020) eta *Euri lauso baten tanta finen* (2021) Ana Belén García organistaren eta KEA ahots taldearen partaidetzarekin.

Gaur egun, harmonia, analisi, konposizio, harmonia moderno eta musika ekoizpeneko irakaslea da Errenteria Musikalean.

Nace en Beasain (Gipuzkoa) en 1979. Su primer contacto con la música fue tocando en grupos de trash metal, en un principio la batería y posteriormente la guitarra y los teclados, haciéndolo siempre de oído. Posteriormente realiza estudios de Filosofía en la Universidad de Deusto, así como el grado en Composición en Musikene. Mientras está cursando estos estudios, en el verano de 2008, graba su primera maqueta y al año siguiente forma un grupo con exalumnos de jazz del mismo centro.

Desde entonces ha realizado varias grabaciones, tanto en solitario como acompañado de diversas formaciones, centrando su interés en la relación entre la música y la palabra: *Errotik* (2012), *Entelekia* (2013), *Oro bat* (2016) y la colección *Horrela bizitzeko*, compuesta por seis volúmenes, de los cuales ya ha publicado cuatro: *Formazio duala* (2020), *Nihaur* (2020), *Organo-narrazioak* (2020) y *Euri lauso baten tanta finen* (2021), contando con la colaboración de la organista Ana Belén García y del grupo vocal KEA.

Actualmente es profesor de armonía, análisis, composición, armonía moderna y producción musical en Errenteria Musikal.

## MARCO, José Luis

Coruñan jaio zen 1941ean. Lau urterekin Madrilera joan zen familiarekin, eta, 16 urterekin, Musika eta Deklamazioko Errege Kontserbatorioan sartu zen. Bertan, harmonia, kontrapuntua eta fuga, konposizioa eta klarinete ikasketak egin zituen, Jesús Arámbarri, Victorino Echevarría, Francisco Calés, Cristóbal Halffter eta Leocadio Parras maisuekin.
1969an Donostiara joan zen eta Francisco Escudero maisuarekin ikasi zuen.
1974an, oposizio bidez, Donostiako harmonia eta konposizioko katedra laguntzaile plaza lortu zuen, eta, 1982an, harmoniako katedra, erretiroa hartu arte bete zuena.
Irakasle izan zen urteetan, *Harmoniari buruzko tratatu praktikoa* (1982-87) argitaratu zuen. Bere ikasleek eta Gipuzkoako musika-zentro gehienek metodo horrekin lan egin izan dute, eta, 1996an, LOGSEren ezarpenaren ondorioz, lege berriaren eskakizunetara egokitutako *Armonia tonal tradicional* lana prestatu zuen.
Bere konposizio-lanak ganbera-musika, orkestra-lanak eta pianorako-lanak biltzen ditu, ahotserako eta pianorako 73 *lieder* bilduma nabarmenduz.

Nace en A Coruña en 1941. Con cuatro años de edad se traslada con su familia a Madrid y, a los 16, ingresa en el Real Conservatorio de Música y Declamación, donde realiza los estudios de Armonía, Contrapunto y Fuga, Composición y Clarinete, con los maestros Jesús Arámbarri, Victorino Echevarría, Francisco Calés, Cristóbal Halffter y Leocadio Parras.
En 1969 se traslada a San Sebastián, donde perfecciona sus estudios con el maestro Francisco Escudero.
En 1974 obtiene por oposición la Auxiliaría de la Cátedra de Armonía y Composición del conservatorio donostiarra y, en 1982, la Cátedra de Armonía, cargo que desempeñará hasta su jubilación.
Durante sus años de profesor publica su *Tratado práctico de armonía* (1982-87), con el que trabajan sus alumnos y gran parte de los centros musicales de la provincia de Gipuzkoa y, en 1996, como consecuencia de la implantación de la LOGSE, prepara su *Armonía tonal tradicional*, adaptada a las exigencias de la nueva ley.
Su obra compositiva incluye música de cámara, obras orquestales y pianísticas, destacando su colección de 73 *lieder* para voz y piano.

# PAGOLA, Beltrán

PAGOLA, Beltrán

Donostian jaio zen 1878an, eta bere jaioterrian hasi zituen musika-ikasketak, José Antonio eta Jesús Santestebanekin. 17 urterekin Madrilgo kontserbatorioan piano ikasketak amaitu zituen, karrera amaierako saria lortuz. Donostiara itzuli zenean, Gran Casinoko seikotean parte hartu zuen Goñi biolinista, Teodoro Bello eta Alfredo Larrocharekin batera. Ondoren, Alfredo Larrochak zuzendutako Orkestra Sinfonikoan eta César Figueridok eta Larrochak berak osatutako hirukotean sartu zen. 1912 inguruan, piano-jotzaile bezala aro berri bat hasi zuen, Casals, Cassadó, Thibaud eta Quirogaren laguntzaile bezala, besteak beste.

1902an Arte Ederretako Akademiako (etorkizuneko Udal Akademia) harmoniako eta konposizioko irakasle izendatu zuten, eta 46 urtez horretan jardun zuen. 1928an oposizio bidez Donostiako kontserbatorioko piano katedra irabazi zuen eta *Tratado práctico de Armonia* idatzi zuen, generoaren teoria modernoenak jasotzen zituena.

Bere ikasle ugarien artean aipatzekoak dira José M.ª Usandizaga, J. M.ª Iraola edo N. Almandoz pianoan, eta P. Sorozabal, J. L. Iturralde, L. Urteaga, T. Garbizu eta F. Escudero harmonian eta konposizioan.

Berandu arte ez zen aritu konposaketan, eta 40 urte zituela ekin zion alderdi horri. Genero sinfonikoa landu zuen, non lau sinfonia, sinfonieta bat, zenbait olerki, kapritxo eta fantasia sinfoniko idatziak utzi zituen. Obra erlijiosoak, korurako obrak, ganbera eta pianorako obrak ere konposatu zituen.

Euskal kantuei buruzko *Sinfonía nº 1*, *Sinfonía nº 2*, *Trágica, Fantasía vasca* edo *El monje organista* kapritxo sinfonikoaren estreinaldiek arrakasta handia izan zuten bere garaian. Autore batzuen ustez, euskal sinfonista garrantzitsuena da, "Euskal musika sinfonikoaren aita".

Bere herrian oso maitatua, 1950eko otsailean, hil aurretik, Donostian omenaldi bat jaso zuen eta, ondoren, Udalak Hiriko Zilarrezko Domina eman zion. Donostian hil zen 1950ean.

Nacido en San Sebastián en 1878, inició los estudios musicales en su localidad natal con José Antonio y Jesús Santesteban. A los 17 años terminó los estudios de piano en el Conservatorio de Madrid, obteniendo el premio de fin de carrera. De regreso en San Sebastián, formó parte del Sexteto del Gran Casino junto con el violinista Goñi, Teodoro Bello y Alfredo Larrocha. Posteriormente ingresó en la Orquesta Sinfónica dirigida por Alfredo Larrocha y en el trío formado por César Figuerido y el propio Larrocha. Hacia 1912 comenzó una nueva etapa como pianista, actuando como acompañante de Casals, Cassadó, Thibaud y Quiroga, entre otros.

En 1902 le nombraron profesor de armonía y composición de la Academia de Bellas Artes (futura Academia Municipal), asignatura que impartió durante 46 años. En 1928 ganó por oposición la Cátedra de Piano del conservatorio donostiarra y escribió un *Tratado práctico de Armonía*, que recogía las teorías más modernas del género.

Entre sus múltiples alumnos cabría destacar a José M.ª Usandizaga, J. M.ª Iraola o N. Almandoz en piano, y a P. Sorozábal, J. L. Iturralde, L. Urteaga, T. Garbizu y F. Escudero en armonía y composición.

No se dedicó a la composición hasta bien tarde, iniciando esta faceta hacia los 40 años. Cultivó el género sinfónico, en el que dejó escritas cuatro sinfonías, una sinfonieta, varios poemas, caprichos y fantasías sinfónicas. También compuso obras religiosas, obras para coro, cámara y piano.

Los estrenos de obras como *Sinfonía n.º 1 sobre cantos vascos*, *Sinfonía n.º 2, Trágica*, *Fantasía vasca* o el capricho sinfónico *El monje organista* cosecharon gran éxito en su época. Algunos autores lo han calificado como el sinfonista vasco más importante, "padre de la música sinfónica vasca".

Muy querido en su localidad, en febrero de 1950, antes de fallecer, recibió un homenaje en Donostia y posteriormente el Ayuntamiento le concedió la Medalla de Plata de la Ciudad. Falleció en San Sebastián en 1950.

# SARASATE, Pablo

Iruñean jaio zen 1844an. Musikako ikasketak bere aitarekin hasi zituen, musikari nagusi militarra zena, eta biolin ikasketak Santiagon eta Coruñan hasi zituen. Lortutako arrakastaren ondoren, prestakuntzan jarraitzeko finantziazioa lortu zuen. Madrilera joan zen Manuel Rodríguezekin ikastera eta, geroago, Parisko kontserbatorioan sartu zen, non Delphin Alard maisuarekin ikasi zuen eta biolineko lehen saria lortu zuen 1857an. Ezaguna egiten hasi zen eta lehen bira europarrak egin zituen, 1867an Amerikara iritsiz. Ordutik aurrera, bere birtuosismoa erakusten hasi zen, Europa eta Amerikako hiri ugaritan zehar, urtean batez beste 200 kontzertu emanez. Piano-jotzaile, bakarlari, orkestra eta ganbera-talde nabarmenekin jo zuen, eta kritika, sari eta kondekorazio bikainak jaso ere. Espainian Zabalza, Guelbenzu, Urrutia eta Tragórekin kolaboratu izan zuen, besteak beste. 1883an Madrilgo Kontserbatorioak ohorezko irakasle izendatu zuen, baina ez zen inoiz irakasle izan.
Biolinaren historiako jenio handienetakotzat eta lehen biolinista modernotzat hartua, errepertorio biolinistikoa berritu zuen, eta Raff, Saint-Saëns, Bruch eta Lalo bezalako konpositoreek harentzako obrak idatzi zituzten.
Bere konpositore izaera biolinista gisa zuen jarduerari lotua dago. Biolin eta orkestrarako, biolin eta pianorako eta biolin bakarrerako obrak konposatu zituen.
Operako-fantasiez, areto-lanez eta transkripzioez gain, Espainiako eta Euskal Herriko herri-musikan inspiratutako lanak nabarmentzen dira, hala nola bere jotak, habanerak eta zortzikoak. *Aires españoles, Romanza andaluza, Zapateado, Capricho vasco, Jota de Navarra eta Zortziko de Iparraguirre* lan ezagunak idatzi zituen besteak beste.
Iruñean hil zen 1908an, 64 urte zituela.

Nace en Pamplona en 1844. Inicia sus estudios musicales con su padre, músico mayor militar, comenzando los de violín en Santiago de Compostela y La Coruña, donde realiza su debut a los 8 años. Tras el éxito obtenido, consigue financiación para continuar su formación. Se traslada a Madrid para estudiar con Manuel Rodríguez y más tarde ingresa en el Conservatorio de París, donde estudia con el maestro Delphin Alard y obtiene el primer premio de violín en 1857. Comienza a hacerse conocido y realiza las primeras giras europeas, llegando a América en 1867. A partir de entonces muestra su virtuosismo recorriendo innumerables ciudades de Europa y América, con una media de 200 conciertos anuales. Toca con destacados pianistas, solistas, orquestas y agrupaciones de cámara, recibiendo excelentes críticas, premios y condecoraciones. En España colabora con Zabalza, Guelbenzu, Urrutia y Tragó, entre otros. En 1883 el Conservatorio de Madrid le nombra profesor honorario, aunque nunca ejerció la docencia. Considerado como uno los de grandes genios de la historia del violín y el primer violinista moderno, renueva el repertorio violinístico, y compositores como Raff, Saint-Saëns, Bruch y Lalo componen obras para él.
Su faceta de compositor está totalmente ligada a su actividad como violinista. Compone obras para violín y orquesta, para violín y piano, y para violín solo.
Además de las fantasías operísticas, obras de salón y transcripciones, destacan las obras inspiradas en la música popular española y vasca, como sus jotas, habaneras y zortzikos, titulados *Aires españoles*, *Romanza andaluza*, *Zapateado*, *Capricho vasco*, *Jota de Navarra* y *Zortziko de Iparraguirre,* entre otros.
Fallece en Pamplona en 1908, a los 64 años de edad.

# SARASOLA, Xabier

19 urterekin hasi zen musika ikasten eta biolin eta piano irakasle tituluak lortu zituen. Gaur egun Beasaingo Udal Musika Eskolan dihardu biolin, harmonia eta kantu koral irakasle. Gipuzkoako Abesbatzen Federazioan eman diren koru zuzendaritza ikastaroetan izan da eta baita Eric Ericson, Carl Hogset, Anders Eby eta beste hainbatekin egin diren mintegietan ere. Loinatz korua zuzentzen du, eta hauekin parte hartu du hainbat lehiaketatan –eta saria lortu–, kontzertuetan eta jaialdietan. Donostiako Orfeoian kantari izana da eta gaur XX. mendeko koru musika egiten duen “Kea” ahots taldeko partaide da. Gipuzkoako Abesbatzen Federazioko batzorde teknikoko kide izan da eta Gipuzkoako gazte koruaren zuzendari ere bai. Euskal Herriko Abesbatzen Federazioaren ikastaroetan koru zuzendaritza irakasten du.
Musikagile ere bada eta korurako hainbat lan egin ditu, hala nola, *Veni Creator Spiritus*, 2002an Tolosan Abesbatzen Lehiaketan ahots berdinetarako polifonia sailean derrigorrezkoa izan zena.

Inicia sus estudios musicales a la edad de 19 años, obteniendo los títulos de profesor de violín y piano. En la actualidad ejerce como profesor de violín, armonía y canto coral en la Escuela Municipal de Música de Beasain.
Ha asistido a los cursos de dirección coral de la Federación de Coros de Gipuzkoa y a seminarios con Eric Ericson, Carl Hogset, Anders Eby, etc. Dirige el coro Loinatz, con quien ha participado en varios concursos obteniendo diversos premios y en numerosos conciertos y festivales corales. Ha sido cantor del Orfeón Donostiarra y ahora lo es del grupo vocal “ Kea “ que se dedica a la música coral del s. XX.
Ha sido miembro del comité técnico de la Federación de Coros de Gipuzkoa y director del coro juvenil de Gipuzkoa. Es profesor de dirección coral de los cursos de la Federación de coros de Euskal Herria.
Como compositor es autor de varias obras corales entre las cuales se encuentra *Veni Creator Spiritus,* obra obligada en la sección de polifonía voces iguales en el Certamen de masas corales de Tolosa 2002.

## SOROZABAL, Pablo

Donostian jaio zen 1897an. Bere jaioterriko Arte Ederretako Akademian hasi zituen musika ikasketak. 1914an Kasino Handiko Orkestran sartu zen, Alfredo Larrocha biolin irakasleak zuzenduta. Harmonia eta konposizioa ikasi zituen Beltran Pagolarekin. 1920an Leipzigera joan zen, Stephan Krehlekin kontrapuntua ikasi zuen eta orkestra zuzendaritza Hans Sittekin. Lan handia egin zuen lehenik banda zuzendari gisa eta geroago orkestra zuzendari gisa.

1922koak dira bere abesbatzarako lehen obrak, eta, jarraian, ganbera eta sinfoniko errepertorioko obrak eta txisturako musika idatzi zituen. 1931n *Katiuska* opereta estreinatu zuen, ordutik aurrera musika lirikoa idatzi zuen batez ere, 23 obra, horien artean *La del manojo de rosas, La Tabernera del Puerto* edo *Adiós a la Bohemia*. Zinemarako musika ere konposatu zuen, ahots edo orkestrako generoak ahaztu gabe.

Madrilen hil zen 1988ko abenduaren 26an.

Nace en San Sebastián en 1897. Inició sus estudios musicales en la Academia de Bellas Artes de San Sebastián. En 1914 ingresó en la Orquesta del Gran Casino, dirigida por su profesor de violín, Alfredo Larrocha. Estudió armonía y composición con Beltrán Pagola. En 1920 se traslada a Leipzig, estudiando contrapunto con S. Kreil y dirección de orquesta con H. Sitt. Desarrolló una gran labor primero como director de banda y más tarde como director de orquesta.

De 1922 datan sus primeras obras corales, a las que siguen obras del repertorio de cámara y sinfónico, y música para txistu. En 1931 estrenó su opereta *Katiuska*, dedicándose a partir de entonces a la música lírica, con un total de 23 obras entre las cuales se encuentran *La del manojo de rosas*, *La tabernera del Puerto* o *Adiós a la Bohemia*. Compuso igualmente música para cine sin olvidar géneros como el vocal o el orquestal.

## UGALDE, Eva

Donostian jaio zen 1973an. Konposizio eta koru zuzendaritza ikastaroak egin zituen Donostian, Gotzon Aulestia eta Miguel Amantegiren eskutik. Javier Bustok zuzendutako Kanta Cantemus ganbera taldeko kide izan da, eta baita Gabriel Baltések zuzendutako KUP taldekoa ere. Donostiako Francisco Escudero Kontserbatorioko Musika Lengoaiako eta Koruko irakaslea da. Korurako obrak konposatu ditu batez ere, eta konposizio koraleko hainbat sari ditu.

Nace en San Sebastián en 1973. Cursa estudios de composición y dirección coral  en Donostia con Gotzon Aulestia y Miguel Amantegi, respectivamente. Ha formado parte de los grupos de cámara Kanta Cantemus, dirigido por Javier Busto, y KUP, dirigido por Gabriel Baltés. Es profesora de Lenguaje Musical y Coro en el Conservatorio Francisco Escudero de Donostia. Forma habitualmente parte de jurados de concursos y competiciones. Es autora fundamentalmente de obras corales, estando en posesión de diversos premios de composición coral.

## UNZU, Angel

1961ean Iruñean jaio zen interpretea, konpositorea, ekoizlea eta moldatzailea. 9 urterekin Donostiara joan zen. Han, gitarra klasikoko ikasketak egin zituen Juan Pradillorekin, eta gitarra-irakasle titulua lortu zuen. Ondoren, Felix Santosekin ikasi zuen Madrilgo Ateneoan eta hobekuntza ikastaroetan parte hartu zuen Leo Brouwer, Ralph Towner, Pat Metheny, Egberto Gismonti, Sérgio Assad, Eduardo Baranzano eta Juan Falúrekin, besteak beste.

Bakarlari gisa egindako lanaz gain, estudioko musikari, moldatzaile edo ekoizle gisa lankidetzan aritu da hainbat artistekin laurogei disko ingurutan parte hartuz (Kepa Junkera, Benito Lertxundi, Oreka TX, Anje Duhalde, Olatz Zugasti, Amaia Zubiria, Jabier Muguruza, Gontzal Mendibil, Diego Vasallo) eta Markeliñe, Ttanttaka, In Fraganti eta Golden Apple Quartet antzerki konpainiekin ere lan egin izan du.

Bilboko Udal Txistulari Bandaren eta EIJOren (Euskadiko Ikasleen Jazz Orkestra) enkarguak jaso ditu, eta big-band eta piano bakarrerako hainbat obra konposatu ditu, azken horiek *Pianorako 10 pieza labur* liburuan argitaratuak (Erviti etxea, 2012).

Musikastera egingo duen bisitan, Unzuk *Orain* (Moskito Rekords, 2021) bere azken diskoa aurkeztuko digu, oraingoan formatu elektrikoan, Gonzalo Tejada baxu-jotzaile donostiarrak eta Juan Manuel Urriza bateria jotzaile nafarrak osatzen duten ohiko hirukotearekin batera. Gonbidatu berezi gisa, Andrzej Olejniczak 1984tik Bilbon bizi den saxofoi jotzaile poloniarrak parte hartuko du.

Intérprete, compositor, productor y arreglista nacido en Pamplona en 1961, se traslada a San Sebastián a los 9 años, donde cursa estudios de guitarra clásica con Juan Pradillo, obteniendo el título de profesor de guitarra. Posteriormente estudia con Félix Santos en el Ateneo de Madrid y participa en cursos de perfeccionamiento con Leo Brouwer, Ralph Towner, Pat Metheny, Egberto Gismonti, Sérgio Assad, Eduardo Baranzano o Juan Falú, entre otros.

Además de su trabajo como líder, ha colaborado como músico de estudio, arreglista o productor en cerca de ochenta discos de diversos artistas como Kepa Junkera, Benito Lertxundi, Oreka TX, Anje Duhalde, Olatz Zugasti, Amaia Zubiria, Jabier Muguruza, Gontzal Mendibil, Diego Vasallo... así como con las compañías teatrales Markeliñe, Ttanttaka, In Fraganti y Golden Apple Quartet.

Ha recibido encargos de la Banda Municipal de Txistularis de Bilbao y la EIJO (Euskadiko Ikasleen Jazz Orkestra), además de haber compuesto varias obras para big-band y para piano solo, estas últimas editadas en el libro *Pianorako 10 pieza labur* (Casa Erviti, 2012).

En su visita a Musikaste, Unzu nos presentará su último trabajo discográfico, "Orain" (Moskito Rekords, 2021), esta vez en formato eléctrico junto a su habitual trío formado por el bajista donostiarra Gonzalo Tejada y el baterista navarro Juan Manuel Urriza, al que para la ocasión se suma como invitado especial el saxofonista polaco afincado en Bilbao desde el año 1984 Andrzej Olejniczak.

# ZUBELDIA, Emiliana

Salinas de Oro herrian jaio zen 1888ko abenduaren 6an. Iruñean hasi zituen musika ikasketak, Madrilen jarraitu zituen eta Parisko Schola Cantorumen zabaldu zituen: Vincent d 'Indy eta Désiré Pâquerekin konposizioa ikasi zuen, eta Blanche Selvarekin pianoa. Ondoren, piano-jotzaile gisa jardun zuen Madrilen, Baionan, Parisen, Zoellerren (Suitza) eta Berlinen. 1920ko hamarkadaren amaieran, Parisen kokatu zen, non "Camélèon" eta "la Revue Musicale" bezalako testuinguru artistiko ospetsuetan bizi izan zen, eta bertan bere konposizioak jakitera emateko aukera izan zuen. 1929an Hego Amerika, Karibe eta Estatu Batuetan zehar bira bat hasi zuen, pianista, konpositore eta orkestra zuzendari bezala aurkeztuz. 1930eko hamarkadan Mexikon kokatu zen, eta Augusto Novaroren teoria musikalez interesatu zen.

1947an, Sonorako Unibertsitateak urtebeterako kontratatu zuen, unibertsitateko abesbatzaren ardura hartuz, eta, aldi berean, hainbat musika-jakintzagairen irakaskuntzan aritu zen. Unibertsitate horretan Musika Akademia sortu zuen 1954an, eta bertan lan nekaezina egin zuen bere bizitza amaitu arte.

Pianorako obra ugari idatzi zituen, esate baterako *Esquisses d 'une après-midi basque*, *Souvenir de Biarritz*, *Cinco Estudios* edo *Once tientos*; *Misa de la Asunción*, *Ainhara*, *Mendiko negarra*, *Matzaren orpotik* edo *Argizagi ederra* bezalako lan koralak idatzi zituen, baita kantu eta pianorako 30 partitura baino gehiago ere, harizko laukotearentzako *Vivace* lana eta *Sinfonía Elegia* obra sinfonikoa ere.

Hermosillon (Sonora) hil zen 1987ko maiatzaren 20an.

Nació en Salinas de Oro el 6 de diciembre de 1888. Inició sus estudios musicales en Pamplona, los continuó en Madrid y los amplió en la Schola Cantorum de París: composición con Vincent d'Indy y Désiré Pâque, y piano con Blanche Selva. Después desarrolló una gran actividad como concertista de piano, actuando en Madrid, Bayona, París, Zoeller (Suiza) y Berlín. Finalizando la década de los años 20 se estableció en París, donde convivió en medios artísticos tan calificados como el "Camélèon" y "La Revue Musicale", donde hizo oír sus propias composiciones. En 1929 inició una gira por Sudamérica, el Caribe y Estados Unidos, presentándose como pianista, compositora y directora de orquesta. Por los años 30 se afincó en México, donde se interesó por las teorías musicales de Augusto Novaro.

En 1947 la Universidad de Sonora la contrató para un año, haciéndose cargo del Coro Universitario, a la vez que se dedicó a la enseñanza de diversas materias musicales. En dicha Universidad fundó en 1954 la Academia de Música, en la que llevó a cabo una incansable labor docente hasta el final de su vida.

Su obra incluye una larga lista de obras pianísticas como *Esquisses d'une après-midi basque*, *Souvenir de Biarritz*, *Cinco estudios* u *Once tientos;* obras corales como *Misa de la Asunción*, *Ainhara*, *Mendiko negarra*, *Matzaren orpotik* o *Argizagi ederra,* más de 30 partituras de canto y piano, un *Vivace* para cuarteto de cuerda y una *Sinfonía elegíaca* para orquesta.

Falleció en Hermosillo (Sonora) el 20 de mayo de 1987.

http://www.emilianadezubeldia.uson.mx/galeria.htm



**Interpreteak:**
Intérpretes:

**Jon Makuso**
(Aurkezpena eta biolina)
(presentación y violín)

**Arrate Zubigaray**
(Aurkezpena eta klabea)
(presentación y clavecín)



# MUSIKASTEKO
# KONTZERTU DIDAKTIKOAK
# MUSIKA JOLAS

Jon Makuso biolin-jotzaileak eta Arrate Zubigaray klabezinistak, euren hizkuntza erabiliz eta erakargarria izan daitekeen formatu batean, kontzertu didaktikoa eskainiko diete Errenteriako LH1etik LH4ra bitarteko haurrei.
Barroko garaiko Europako gune garrantzitsuetara egingo dute bidaia, Pasaiako portutik abiatuta, Londres, Erroma, Versailles edo Hamburgora, bertako musika ezagutzeko aukera izango dute.
Aurten, COVID19ren ondoriozko osasun-murrizketak direla-eta, jarduera hori publikorik gabe grabatuko da, eta irakasleei bidaliko zaie, ikasgelan digitalki landu dezaten.

El violinista Jon Makuso y la clavecinista Arrate Zubigaray ofrecerán un concierto didáctico a los niños de LH1 a LH4 de Errenteria utilizando su propio idioma y en un formato que pueda resultar atractivo.
Realizarán un viaje a importantes puntos de Europa de la época barroca. Partiendo del puerto de Pasajes irán a Londres, Roma, Versalles o Hamburgo, donde podrán conocer la música que se escuchaba en los salones de aquella época.
Este año, debido a las restricciones sanitarias derivadas del COVID19, esta actividad se grabará sin público y se enviará al profesorado para que la trabajen digitalmente en el aula.

ANTOLATZAILEAK ORGANIZAN

AMA
Andra Mari Abesbatza

Eresbil

SUSTATZAILEAK PROMUEVEN

KULTURA kreaktiboa

ERRENTERIA
UDALA

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputacion Foral de Gipuzkoa

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA

BABESLEA PATROCINA

kutxa
FUNDAZIOA

LABORAL
kutxa

LAGUNTZAILEAK COLABORAN

SUPER
AMARA

Herri
ARTE ESKOLA

Euskal Herriko goi-mailako musika ikastegia

Centro superior de música del País Vasco

musikene

musika bulegoa
euskal herriko musika bulego elkartea

Musikagileak